



Nokia 7210^{Supernova}-ren

erabiltzailearen eskuliburua
NOKIA

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



CE 0434

Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-436ak 1999/5/EE zuzentarauko oinarritzko baldintzak eta aplikatu edo eskatu beharreko gainerako xedapenak betetzen dituela. Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan: http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/.

Nokia, Nokia Connecting People eta Navi markak Nokia Corporation-en merkataritzako markak edo marka erregistratuak dira. Nokia tune Nokia Corporation-ek erregistratutako doinua da. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen marka komertzialak edo erregistratuak izan daitezke.

Debekatuta dago dokumentu osoa edo zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.



Includes RSA BSAFE cryptographic or security protocol software from RSA Security.



Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

This product is licensed under the MPEG-4 Visual Patent Portfolio License (i) for personal and noncommercial use in connection with information which has been encoded in compliance with the MPEG-4 Visual Standard by a consumer engaged in a personal and noncommercial activity and (ii) for use in connection with MPEG-4 video provided by a licensed video provider. No license is granted or shall be implied for any other use. Additional information, including that related to promotional, internal, and commercial uses, may be obtained from MPEG LA, LLC. See <http://www.mpegla.com>

Produktu honek Ikusizko MPEG-4 Patenteen Zorroaren Lizentzia izan behar du, (i) kontsumitzaile batek helburu ez-komertzialarekin eta pertsonalarekin ikusizko MPEG-4 Estandarraren arabera kodetutako informazioarekin lotutako erabilera pertsonal eta ez-komertzialerako, (ii) bideo-irtenbideen hornitzaile baimendu batek eskainitako MPEG-4 bideoarekin lotutako erabilera bateraturako. Ez da barne hartzen ez eta inplizituki hartzen ere beste zerbaiterako erabiltzeko lizentziarik. Erabilera komertzialari, sustatzaileari eta MPEG LA, LLC-ri buruzko informazio gehiago eska dezakezu. Ikus <http://www.mpegla.com>.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta eskubidea dauka dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko aurrez ohartarazi gabe. APLIKATU BEHARREKO LEGEAK ONARTZEN DUTEN NEURRIAN, NOKIAK EZ DITU BERE GAIN HARTZEN DATUEN EDO SARREREN GALERAK, EZ ETA INOLAKO KALTE BEREZIAK ERE, ISTRIPUEN ONDORIO DIRENAK, ZUZENKOAK EDO ZEHARKAKOAK, ARRAZOIA EDOZEIN DELA ERE.

DOKUMENTU HONETAKO EDUKIA BERE HORRETAN EMATEN DA. DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNAK, FIDAGARRITASUNAK ETA EDUKIAK EZ DUTE BERMERIK IZANGO, EZ ESPLIZITURIK, EZ INPLIZITURIK, INDIRREAN DAGOEN LEGEAK HORI ADIERAZI EZEAN, EZ ETA, BESTEAK BESTE, HELBURU JAKIN BATERAKO MERKATURATZE-BERMERIK ETA EGOKI IZATEAREN ONDORIOZKO BERMERIK ERE. NOKIAK ESKUBIDEA DU EDOZEIN UNETAN, AURREZ JAKINARAZI GABE, DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO BALIOGABETZEKO.

Aplikazio, produktu eta zerbitzu jakin batzuk eskura egotea desberdina izan daiteke eskualde batetik bestera. Jari harremanetan Nokiaren banatzailearekin, xehetasun gehiagori eta aukeran dauden hizkuntzei buruzko informazioa izateko.

Esportazioa kontrolatzea

Produktu honek AEBko eta beste herrialde batzuetako araudien eta legearen arabera osagaiak, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legeak urratzea.

FCC / INDUSTRY CANADA-REN OHARRA

Gailuak eragina izan dezake irratiazen edo telebistaren seinalearen harreran (adibidez, telefonoa hargailu batetik gertu erabiltzen denean). FCCk edo Industry Canadák telefonoa gehiago ez erabiltzeko eska diezazukete, interferentzia horiek ezaba ezin badaitezke. Laguntza behar izanez gero, jarri harremanetan banatzailearekin. Gailu honek FCC araudien 15. atala betetzen du. Funtzionamenduak bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarrik sortu behar eta (2) jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne. Nokiaren baimenik gabe gailuan aldaketak eginez gero, ekipoa erabiltzeko baimena ken dazioke erabiltzaileari.

Modeloaren zenbakia: 7210c 9209659/1. edizioa

Aurkibidea

Segurtasuna	7	Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak	21
1. Informazio orokorra	8	4. Testua idaztea	21
Zure gailuari buruz	8	Testua idazteko moduak	21
Sare-zerbitzuak	8	Ohiko bidea erabilita testua idaztea	22
Sarbide-kodeak	9	Testu prediktiboarekin idaztea	22
Konfigurazioa doitzeko zerbitzua	9	5. Menuetan batetik bestera mugitzea	22
My Nokia	10	6. Mezuak	23
Edukiaren deskarga	10	Testu- eta multimedia-mezuak	23
Aholku erabilgarriak	10	Testu-mezuak	23
Softwarea eguneratzea	10	Multimedia-mezuak	23
Nokiaren euskarria	11	Testu-mezuak edo multimedia-mezuak ... sortzea	24
Eskubide digitalen kudeaketa	11	Mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea	24
2. Oinarrizko kontzeptuak	12	Mezuak bidaltzea	25
Bateria eta SIM txartela jartzea	12	Posta elektronikoa	25
MicroSD txartela sartzea	13	Posta elektronikoa konfiguratzeko laguntzailea	25
Memoria-txartela ateratzea	14	Mezu elektronikoak idaztea eta bidaltzea	25
Bateria kargatzea	14	Mezu elektronikoak jasotzea eta erantzutea	26
Antena	15	Mezu elektroniko berrien jakinarazpenak	26
Esku libreko kit eramangarria	15	Flash mezuak	26
Uhala	15	Nokia Xpress-en audio-mezuak	27
Teklak eta piezak	16	Berehalako mezuak	27
Telefonoa piztea eta itzaltzea	16	Informazio-mezuak, SIM mezuak eta zerbitzu-komandoak	27
Itxaroteko modua	17	Ahots-mezuak	28
Pantailaren ezarpenak	17	Mezuen ezarpenak	28
Itxarote aktiboa	17	7. Telefono-aurkibidea	28
Lasterbideak itxaroteko moduan	18	Kontaktuak kudeatzea	29
Adierazleak	18	Bisita-txartelak	30
Sarerako konexiorik gabeko modua	18		
Teklatua blokeatzea	19		
SIM txartelik gabeko funtzioak	19		
3. Deiak	19		
Deiak egitea	19		
Sarrerako deia	20		
Laster-teklak	20		
Ahots bidezko markaketa	20		

Laster-teklak esleitzea.....	30	Aurkibidea	
8. Dei-erregistroa	31	Kamera eta bideoa	41
9. Kokapen-erregistroa.....	31	Argazkiak ateratzea.....	42
10. Konektagarritasuna	31	Bideoklipak grabatzea.....	42
Bluetooth haririk gabeko teknologia	31	Kameraren eta bideoaren aukerak.....	42
Datu-paketeak.....	32	Musika erreproduzitzailea	42
USB datu-kablea	33	Musikaren menua.....	43
Sinkronizazioa eta segurtasun-kopia	33	Abestiak erreproduzitzea	43
Nokia PC Suite.....	33	Musika-erreproduzitzailearen itxura	44
11. Ezarpenak.....	34	aldatzea.....	44
Moduak.....	34	Irratia	44
Gaiak	34	Irrati-kateak sintonizatzea	45
Tonuak	34	Irratiaren funtzioak	45
Pantailaren ezarpenak.....	34	Grabagailua.....	45
Eguna eta ordua.....	35	Ekualizadorea	46
Nire lasterbideak.....	35	Audio estereoa hobetzea	46
Ezkerreko eta eskuineko		Zerbitzu batera konektatzea.....	46
hautaketa-teklak.....	35	Itxuraren ezarpenak	47
Beste zenbait lasterbide	35	Cache memoria.....	47
Deiaren ezarpenak.....	36	Nabigatzailearen segurtasuna.....	47
Telefonoa.....	36	16. Antolatzailea	48
Ahots-komandoak.....	37	Alarma	48
Ekipamendua.....	37	Telefono-aurkibidea	48
Bilaketaren konfig.....	38	Lanen zerrenda	49
Softwarea uhin bidez eguneratzea.....	38	Oharrak.....	49
Segurtasuna.....	39	Kalkulagailua.....	49
Jatorrizko konfigurazioa leheneratzea.....	40	Atzerako kontaktaren tenporizadorea	49
12. Operadorearen menua	40	Kronometroa.....	50
13. Galeria	40	17. Jokoak	50
Karpetak eta fitxategiak.....	40	Aplikazio bat abiaraztea	50
Irudiak inprimatzea	40	Aplikazioa deskargatzea	51
Memoria-txartela	41	18. SIM zerbitzuak	51
14. Multimedia.....	41	Bateria	52
		Bateriari eta kargagailuari buruzko	
		informazioa.....	52
		Nokia bateriak autentifikatzeko arauak	53

Aurkibidea

Hologramaren egiazkotasuna.....	54
Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?	54

Zainketa eta mantentze-lana 54

Ezabatzeko tekla.....	55
-----------------------	----

Haurren inguruko informazio

osagarria..... 56

Ingurune operatiboa	56
---------------------------	----

Aparatu medikoak.....	56
-----------------------	----

Gorputzean ezarritako gailu medikoak	56
---	----

Entzuteko gailuak	57
-------------------------	----

Ibilgailuak	57
-------------------	----

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak.....	57
--	----

Larrialdi-deiak	58
-----------------------	----

ABSORTZIO ESPEZIFIKOAREN TASAREN	
----------------------------------	--

ZIURTAGIRIA (SAR)	59
-------------------------	----

Aurkibide alfabetikoa..... 60

Segurtasuna

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Irakurri erabiltzailearen eskuliburu osoa informazio gehiago izateko.



PIZTU TELEFONOA ARRISKURIK GABE

Ez piztu gailua mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA

Errespetatu tokian tokiko legedia. Gidatzen duzun bitartean, eskuak libre izan beti autoarekin maniobrak egin ahal izateko. Gogoratu errepedean gidatzeko lehen araua arretaz ibiltzea dela.



INTERFERENTZIAK

Gailu mugikor guztiak jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.



LEKU MUGATUETAN ITZALTZEA

Errespetatu murrizketa guztiak. Itzali gailua hegazkinetan eta ekipo medikoetatik, erregaietatik, produktu kimikoetatik eta leherketak egiten diren tokietatik hurbil dauden lekuetan.



ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu teknikoetako langile gaituek soilik instala edo konpon dezakete produktua.



EKIPAMENDUA ETA BATERIAK

Fabrikatzaileak onartutako ekipamendua eta bateriak soilik erabili. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure gailuak ezin du ura jasan. Ez ezazu busti.

1. Informazio orokorra

Zure gailuari buruz

Gidaliburu honetan deskribatutako gailu mugikorra 900, 1800 eta 1900 MHz-eko GSM sareetan erabiltzeko onartuta dago. Sareei buruz informazio gehiago izateko, jarri zure zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Gailu honetako funtzioak erabiltzean, errespetatu legeak eta gainerako pertsonen pribatutasuna eta legezko eskubideak, copyright-ak barne, baita tokiko ohiturak ere.

Copyright-en babesak direla eta, agian, irudi, musika eta beste eduki batzuk ezingo dituzu kopiatu, aldatu edo transferitu.

Aurrez instalatutako gogokoak edo estekak izan ditzake gailuak, hirugarrenen Interneteko guneetara sartzeko. Halaber, hirugarrenen guneetara sar zaitezke gailuaren bidez. Hirugarrenen guneak ez daude Nokiari lotuta; horrenbestez, Nokiak ez ditu babesten web gune horiek, eta ez du bere gain hartzen horiekiko erantzukizunik. Gune horietara sartzen bazara, kontuz ibili beharko duzu segurtasunari eta edukiari dagokionez.



Oharra: gailu honen funtzioak –erlojuaren alarma salbu– erabiltzeko, piztuta egon behar du. Ez piztu haririk gabeko gailua interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Gogoratu telefonoan gordetzen duzun informazio garrantzitsu guztiaren segurtasun-kopiak egitea edo idatziz erregistratzea.

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.

Sare-zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko, haririk gabeko zerbitzuen hornitzaile baten zerbitzuak kontratatu behar dituzu. Funtzio askok sare-funtzio bereziak behar dituzte. Funtzio horiek ez daude erabilgarri sare guztietan. Litekeena da, sare batzuetan, zerbitzu-hornitzailearekin hitzarmen bat sinatu behar izatea sare-zerbitzua erabili ahal izateko. Zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizkizu jarraibideak, eta jakinaraziko dizu zenbat kobratuko dizuten. Litekeena da sare batzuek zenbait muga izatea eta horiek sare-zerbitzuak erabiltzeko moduan eragitea. Adibidez, baliteke sare batzuek ez onartzea hizkuntzaren menpe dauden zenbait karaktere eta zerbitzu,

eta litekeena da zerbitzu-hornitzaileak eskatu izana funtzio batzuk gailuan erabilgarri edo aktibatuta ez egotea. Hala bada, funtzio horiek ez dira agertuko zure telefonoaren menuan. Zure gailuak konfigurazio bereziak izan ditzake; esate baterako, aldaketak menuen izen eta ordenetan eta menuetan. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan.

Sarbide-kodeak

Telefonoak sarbide-kodeak eta segurtasun-ezarpenak nola erabili zehazteko, hautatu

Menua > Ezarpenak > Segurtasuna > Sarbide kodeak.

- PIN (UPIN) kodeak, SIM (USIM) txartelarekin batera dagoenak, txartela baimenik gabe erabiltzetik babesten laguntzen du.
- PIN2 (UPIN2) kodea, SIM (USIM) txartel batzuekin batera dagoena, beharrezkoa da zerbitzu jakin batzuetara sartzeko.
- PUK (UPUK) eta PUK2 (UPUK2) kodeak SIM (USIM) txartelarekin batera egon daitezke. PIN kodea hiru aldiz jarraian oker idazten baduzu, PUK kodea eskatuko zaizu. Kode horiek ez badizkizute eman, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
- Segurtasun-kodeak telefonoa baimenik gabe erabiltzetik babesten laguntzen du. Kodea sortu eta alda dezakezu, eta telefonoa konfiguratu, kodea eska dezan. Gorde kodea leku sekretu eta seguruan, telefonotik urrun. Kodea ahaztu eta telefonoa blokeatu bazaizu, zerbitzu teknikora jo beharko duzu; baliteke kargu gehigarriak aplikatzea. Informazio xeheagoa eskuratzeko, jarri harremanetan Nokia Care gunearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin.
- Murriztapenen pasahitza beharrezkoa da zure telefonora edo zure telefonotik (sare-zerbitzua) egindako deien murriztapen-zerbitzua erabiltzeko.
- Web nabigatzailearen ezarpenak ikusteko edo aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna > Segurt. modul. ezarp..**

Konfigurazioa doitzeko zerbitzua

Sare-zerbitzu batzuk erabiltzeko (mugikorrentzako Interneteko zerbitzuak, multimedia mezuen zerbitzua (MMS), Nokia Xpress-en audio-mezularitza edo urruneko Internet zerbitzari bat sinkronizatzea), telefonoak konfigurazio jakin batzuk eduki behar ditu doitu. Doikuntzen eskuragarritasunari buruzko informazio gehiago izateko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin edo Nokia banatzaile baimendu batekin edo ikus ezazu Nokiaren web guneko laguntzari buruzko informazioa. **Ikus, "Nokiaren euskarria", 11. or.**

Konfigurazio-mezu batean ezarpenak jasotzen badituzu eta ezarpen horiek ez badira automatikoki gordetzen edo aplikatzen, **Konfigurazio-ezarpenak jaso dira** mezua jasoko duzu.

Ezarpenak gordetzeko, hautatu **Bistaratu > Gorde**. Beharrezkoa bada, idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PIN kodea.

My Nokia

Esкура dituzu doako aholkuak, Nokia telefonorako trikimailuak eta laguntza, probarako eduki gehigarria, erakustaldi interaktiboak, web gune pertsonalizatua eta Nokiaren azken produktuei eta zerbitzuei buruzko berriak.

Aprobetxatu ahalik eta gehien zure Nokia telefonoa; erregistratu orain My Nokia-n! Zure lurraldean eskuragarri dagoen jakiteko, ikus www.nokia.com/mynokia.

Edukiaren deskarga

Eduki berriak (adibidez, gaiak) deskarga ditzakezu telefonoan (sare-zerbitzua).



Garrantzitsua: kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

Kontsultatu zerbitzu-hornitzailearekin zerbitzuen erabilgarritasuna eta prezioak.

Aholku erabilgarriak

Zure telefonoari buruzko galderak badituzu edo nola erabiltzen den ziur ez badakizu, erabiltzailearen eskuliburura jo. Horrek lagundu ez badizu, saiatu hau egiten:

- Berrabiarazi gailua: itzali telefonoa eta atera bateria. Segundo batzuk igarotzean, sartu bateria berriz, eta piztu telefonoa.
- Jarri hasierako konfigurazioa. **Ikus “Jatorrizko konfigurazioa leheneratzea”, 40. or.**
- Egunerako telefonoaren aplikazioa Nokia Software Updater erabilia, eskuragarri baldin badago. **Ikus “Softwarea eguneratzea”, 10. orrialdean.**
- Ikus Nokiaren Web gunea edo jarri harremanetan Nokia Care-rekin. **Ikus, “Nokiaren euskarria”, 11. or.**

Argitu gabeko galderaren bat baduzu, jarri harremanetan tokiko Nokia Care puntuarekin, konpontzeko aukerei buruzko informazioa eskuratzeko. Zure telefonoa konpontzera bidali aurretik, zure telefonoko datuen segurtasun-kopia eta grabazio bat egin.

Softwarea eguneratzea

Funtzio eta prestazio berriak eta errendimendu handiagoa dituen software-eguneratzeak eskaini ditzake Nokiak. Eguneratze horiek PC Nokia Software Updater aplikazioarekin eska ditzakezu. Gailuaren softwarea eguneratzeko, nahitaezkoa da Nokia Software Updater aplikazioa eta Microsoft Windows 2000, XP edo Vistarekin bateragarria den PC bat edukitzea, baita banda zabaleko Interneterako sarbidea eta gailua PCra konektatzeko datukable bateragarria izatea ere.

Informazio gehiago izateko eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikus www.nokia.com/softwareupdate edo Nokiaren tokiko web gunea.

Zure sareak softwarea uhinen bidez eguneratzea onartzen badu, telefonoz eskatu ahal izango dituzu eguneratzeak. **Ikus “Softwarea uhin bidez eguneratzea”, 38. orrialdean.**



Garrantzitsua: kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

Nokiaren euskarria

Ikus www.nokia.com/support gunea edo zure herrialdeko Nokiaren web gunea, eskuliburu honen azken bertsioa eskuratzeko, informazio osagarria irakurtzeko, deskargak egiteko eta Nokiaren produktuei lotutako zerbitzuak zein diren jakiteko.

Konfigurazioa doitzeko zerbitzua

Deskargatu doan konfigurazioko ezarpenak (MMS, GPRS, posta elektronikoa edo beste zerbitzu batzuetarako), www.nokia.com/support gunetik, modelo honetarako.

Nokia PC Suite

PC Suite eta hari buruzko informazio gehiago Nokiaren web gunean (www.nokia.com/support) lor dezakezu.

Nokia Care-ren zerbitzuak

Nokia Care zerbitzuekin harremanetan jarri nahi izanez gero, kontsultatu Nokiaren harremanetarako zentroen zerrenda www.nokia.com/customerservice gunean.

NOKIA
Care

Mantentze-lanak

Mantentze-lanetako zerbitzuei dagokienez, ikus Nokia Care-ren zerbitzu-zentrorik hurbilena zein den, www.nokia.com/repair helbidean.

Eskubide digitalen kudeaketa

Jabego intelektualeko eskubideak babesteko, copyright-ak barne, edukiaren jabeek hainbat teknologia-mota erabil ditzakete eskubide digitalak kudeatzeko (DRM). Gailu horrek hainbat DRM software-mota erabiltzen ditu DRM bidez babestutako edukian sartzeko. Gailu honekin WMDRM10, OMA DRM 1.0, berriz bidaltzeko aukera blokeatzen zaion OMA DRM 1.0 eta OMA DRM 2.0. bidez babestutako edukia eskura dezakezu. DRM softwareren batek edukia babestea lortzen ez badu, edukiaren jabeek eska dezakete DRM software horrek DRM bidez babestutako eduki berrira sartzeko duen gaitasuna ezeztatzeko. Zure gailuan dagoen eduki hori berritzea ere saihestu dezake ezeztatze horrek.

Oinarrizko kontzeptuak

DRM softwarea berritzeak ez dio eragiten beste DRM-mota batzuekin babestutako edukiaren erabilerari edo DRM bidez babestu gabeko edukiaren erabilerari.

Eskubide digitalen kudeaketa (DRM) bidez babestutako edukia aktibatze-gako batekin batera ematen da, eta gako horrek zehazten ditu edukia erabiltzeko dituzun eskubideak.

Zure gailuak DRM OMA bidez babestutako edukia badu, erabili Nokia PC Suiteren segurtasun-kopiak egiteko funtzioa, aktibatze-kodeen eta edukiaren segurtasun-kopia bat egiteko. Baliteke beste transferentzia-metodo batzuek ez transferitzea aktibatze-kodeak, eta horiek edukiarekin leheneratu behar dira, gailuaren memoria formateatu ondoren DRM OMA bidez babestutako edukia erabiltzen jarraitu ahal izateko. Gailuko fitxategiek kalteak jasaten badituzte, baliteke aktibatze-kodeak ere leheneratu behar izatea.

Zure gailuak WMDRM bidez babestutako edukia badu (bai aktibatze-kodeak, bai edukia), galdu egingo dira gailuko memoria formateatzen bada. Gailuko fitxategiek kalteak jasaten badituzte, baliteke aktibatze-kodeak eta edukia ere galtzea. Aktibatze-kodeak edo edukia galtzeak mugatu egin dezake gailuan eduki hori berriro erabiltzeko aukera. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

2. Oinarrizko kontzeptuak


Bateria eta SIM txartela jartzea

Bateria atera aurretik, telefonoa itzali beti eta deskonektatu kargagailua.



Gailu hau BL-4CT bateriarekin erabiltzeko diseinaturata dago. Erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. [Ikus "Nokia bateriak autentifikatzeko arauak", 53. or.](#)

SIM txartela eta haren kontaktuak oso erraz honda daitezke harramazka edo tolesturekin; kontuz erabili behar duzu, beraz, telefonoan sartzerakoan edo ateratzerakoan.

1. Atzeko karkasa jaso eta ateratzeko, sakatu irekitzeko botoia. Atera bateria, SIM txartelaren konpartimendua desblokeatzeko.



2. Sartu SIM txartela konpartimenduan, kontaktu-aldea behera begira duela.
3. Bateria sartzean, kontuz kontaktuekin. Jarri berriro atzeko karkasa.



MicroSD txartela sartzea

Erabili Nokiak gailu honetarako onartutako microSD txartelak bakarrik. Memoria-txarteletarako sektorean onartutako estandarrak erabiltzen ditu Nokiak; dena den, baliteke marka batzuk gailu honekin erabat bateragarriak ez izatea. Txartel bateraezinek kalte egin diezaiekete txartelari berari edo gailuari, eta horietan gordetako datuak honda ditzakete. Gehenez ere 2 GB-ko microSD txartelak onartzen ditu zure telefonoak.

Oinarrizko kontzeptuak

1. Ireki atzeko karkasa.
2. Sartu txartela microSD txartelaren artean, kontaktua beherantz duela, eta presio egin ongi sartu arte.
3. Jarri berriro atzeko karkasa.



Memoria-txartela ateratzea



Garrantzitsua: ez atera memoria-txartela martxan dagoenean, txartelera sartzen ari denean. Martxan dagoen bitartean txartela ateratzen bada, memoria-txartela, gailua eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

Telefonoa martxan dela kendu edo alda dezakezu memoria-txartela, itzali beharrik gabe.

1. Ziurtatu ez dagoela memoria-txartela erabiltzen ari den aplikaziorik.
2. Ireki atzeko karkasa.
3. Sakatu pixka bat memoria-txartela, askatzeko, eta atera.
4. Jarri berriro atzeko karkasa.


Bateria kargatzea

Bateria aurrez kargatzen bada ere, baliteke karga-mailak desberdinak izatea.

1. Konektatu kargagailua paretako korrante-hartune batera.
2. Konektatu kargagailua telefonoari.
3. Bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua gailutik eta, gero, korrante-hartunetik.

Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.

Kargatzeko denbora erabiltzen duzun kargagailuaren arabera da. AC-4 kargagailuarekin BL-4CT bateria kargatzeko, ordu eta erdi behar da gutxi gorabehera, telefonoa itxaroteko moduan badago.





Antena

Litekeena da zure gailuak barneko eta kanpoko antenak edukitzea. Irrati-uhin bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, antena seinalea igortzen edo jasotzen ari den bitartean, ez ukitu antena beharrezkoa ez bada. Antena hori ukitzeak komunikazioaren kalitateari eragiten dio; horregatik, litekeena da gailuak behar baino potentzia gehiagorekin funtzionatu behar izatea eta bateriaren iraupena laburtzea. Antenaren eremua grisez markatuta dago irudian.



Esku libreko kit eramangarria

 **Oharra:** neurrizko bolumenean entzun musika. Irratia etengabe oso ozen izateak, entzumena kalte dezake. bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

 **Oharra:** entzungailuak erabiltzen badituzu, baliteke kanpoko soinuak ongi ez entzutea. Ez erabili entzungailuak arriskutsua den egoeratan.

AV Nokia konektoreari Nokiak onartutakoak ez diren kanpoko gailu bat edo esku libreko kit bat konektatzean, arreta berezia jarri.


Ez konektatu irteerako seinalea sortzen duten produktuak, gailuari kalte egin diezaiokete eta. Ez konektatu tentsio-iturririk Nokia AV konektorerara.

Uhala

1. Kendu goiko karkasa.

Dinarrizko kontzeptuak

2. Sartu uhala eta egin tira.
3. Ordeztu atzeko karkasa.



Teklak eta piezak

1	Entzungailua	2	Kargagailuaren konektorea
3	Navi® tekla, hemendik aurrera "desplazamendu-tekla"	4	Ezkerreko hautaketa-tekla
5	Deitzeko tekla	6	Teklatua
7	Pantaila	8	Eskuineko hautaketa-tekla
9	Pizteko tekla eta deia amaitzeko tekla	10	AV Nokia konektorea (2,5 mm)
11	USB kablearen minikonektorea	12	Atzeko karkasa irekitzeko botoia
13	Kameraren lentea	14	Bozgorailua

Telefonoa piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko edo itzaltzeko, luze sakatu pizteko tekla.

Telefonoak PIN kodea eskatzen badu, sar ezazu (pantailan **** agertuko da).




Telefonoak data eta ordua eskatzen badizu, jarri zure ordu-eremua, Greenwicheko meridianoko orduarekiko (GMT) diferentziaren arabera, eta sartu data. **Ikus “Ordua eta data”, 35. or.**

Telefonoa lehen aldiz pizten duzunean, agian eskatuko dizu zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-ekarpenak eskuratzeko (sare-zerbitzua). Informazio gehiago lortzeko, **ikus Kon. laguntz.-zerbitz. Ikus ‘Konfigurazioa’, 38. orrialdean, eta ‘Konfigurazioa doitzeko zerbitzua’, 9. orrialdean.**

Itxaroteko modua

Telefonoa erabiltzeko prest dagoenean eta karaktererik sartu ez denean, deiak egiteko/ jasotzeko moduan jartzen da.

Pantailaren ezarpenak

1	Sare zelularren seinalearen intentsitatea 	
2	Bateriaren karga-egoera adierazteko 	
3	Adierazleak	
4	Sarearen izena edo operadorearen logotipoa	
5	Erlojua	
6	Pantailaren ezarpenak	
7	Ezkerreko hautaketa-teklaren funtzioa	
8	Navi teklaren funtzioa	
9	Eskuineko hautaketa-teklaren funtzioa	

Ezkerreko eta eskuineko hautaketa-teklen funtzioa aldatu egin dezakezu. **Ikus “Ezkerreko eta eskuineko hautaketa-teklak”, 35. or.**

Itxarote aktiboa

Itxaroteko modu aktiboan gailuaren funtzioen zerrenda bat eta telefonoaren informazioa ikus daitezke, eta zuzenean sar daiteke horietara.

Itxarote aktiboa aktibatzeko edo desaktibatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Pantaila> Egonean aktibo > Egon. aktibo modua.**

Itxaroteko modu aktiboan, joan gora edo behera zerrendan mugitzeko, eta hautatu **Aukeratu** edo **Ikusi**. Geziek adierazten dute informazio gehiago dagoela eskuragarri. Nabigazioa geldiarazteko, aukeratu **Irten**.














Modu aktiboa antolatzeko eta aldatzeko, hautatu Aukerak atalean eskuragarri dauden aukeretatik bat.

Lasterbideak itxaroteko moduan


Markatutako zenbakien zerrendan sartzeko, sakatu behin deitzeko tekla. Zerrendako zenbaki batera deitzeko, joan zenbaki horretara edo izenera eta sakatu deitzeko tekla. Web nabigatzailea irekitzeko, luze sakatu 0 tekla. Ahots-ontzira deitzeko, luze sakatu 1 tekla.

Teklak lasterbide gisa erabil ditzakezu. [Ikus "Laster-teklak". 20. or.](#)

Adierazleak

-  Irakurri gabeko mezuak dituzu.
-  Bidali gabeko mezuak, ezeztatutako mezuak edo bidaltzean errorea eman duten mezuak dituzu.
-  Gal dutako deiak dituzu.
-  Teklatua blokeatuta dago.
-  Telefonoak ez du jotzen deiak edo testu-mezuak jasotzean. Alarma bat jarri da.
-  G/E Telefonoa GPRS edo EGPRS sare batean dago harpidetuta.
-  G/E GPRS edo EGPRS konexio bat ezarrita du telefonoak.
-  G/E GPRS edo EGPRS konexioa bertan behera utzi da (zain).
-  Bluetooth konexioa aktibatuta dago.
-  Bi telefono-linea badituzu, bigarren telefono-linea hautatuta dagoela adierazten du.
-  Sartzen diren dei guztiak beste zenbaki batera desbideratuko dira.
-  Deiak erabiltzaile-talde itxi batera mugatu dira.
-  Profil aktiboa programatuta dago une honetan.

Sarerako konexiorik gabeko modua

Erabili sarerako konexiorik gabeko modua ingurune irratisentikorretan –adibidez, hegazkin eta ospitaleetan–, irrati-maiztasuneko funtzio guztiak desaktibatuzko. Lineaz kanpoko jokoak, agenda eta telefono-zenbakiak erabili ahal izango dituzu. Sarerako konexiorik gabeko modua aktibatuta dagoenean,  bistaratzen da.

Sarerako konexiorik gabeko modua aktibatzen edo konfiguratzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Profilak > Hegaldia > Aktibatu** edo **Pertsonalizatu**.

Sarerako konexiorik gabeko modua desaktibatzen, hautatu beste edozein modu.

Konexiorik gabeko moduan larrialdiko deiak egitea

Sartu larrialdiko zenbakia, sakatu deitzeko tekla eta hautatu **Bai** hau galdetzean: **Hegazkin profiletik irten?**



Oharra: gailua konexio gabeko moduan dagoenean, ezin da deirik egin, ez jaso -larrialdiko deiak barne-, ez sare-estaldura behar duten funtzioak erabili. Deiak egiteko, lehenbizi gailuaren funtzioa aktibatu behar duzu, eta, horretarako, profilak aldatu behar dituzu. Gailua blokeatuta badago, markatu blokeatze-kodea. Gailua blokeatuta dagoela eta konexiorik gabeko moduan dagoenean larrialdi-dei bat egin behar baduzu, gailua programatutako larrialdi-zenbaki ofiziala idatz dezakezu blokeatze-kodearen eremuan eta "deitu" aukeratu. Gailuak baieztatuko dizu konexiorik gabeko modutik irteteko puntuan zaudela larrialdi-dei bat egiteko.

Teklatua blokeatzea

Teklatua blokeatzeko eta teklak ustekabean sakatzea eragozteko, hautatu **Menua**, eta sakatu * ondorengo 3,5 segundotan.

Teklatua desblokeatzeko, hautatu **Deskblok** eta sakatu * 1,5 segundoz. Beharrezkoa bada, idatzi blokeatzeko pasahitza.

Teklatua blokeatuta dagoela dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Deia amaitzean edo ez onartzean, teklata automatikoki blokeatuko da.

Halaber, eskura dituzu **Tekl.-blok. automat.** eta **Segurt. tekl.-babeslea** aukerak. **Ikus "Telefonoa", 36. or.**

Gailua edo teklata blokeatuak egon arren, deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

SIM txartelik gabeko funtzioak

Baliteke zure telefonoaren funtzio batzuk SIM txartela sartu gabe erabili ahal izatea, esaterako, Antolatzailea eta Jokoak. Menuetako zenbait funtzio indargabetuta agertuko dira, eta ezingo dira erabili.

3. Deiak

Deiak egitea

Deia hainbat erataraz egin dezakezu:

Deiak

- Sartu telefono-zenbakia aurrezenbakiarekin, eta sakatu deitzeko tekla. Nazioarteko deiak egiteko, sakatu ... bi aldiz + karakterea markatzeko (nazioarteko sarbide-kodea ordeztu du) eta, ondoren, markatu herrialdearen kodea, aurrezenbakia (hasierako zeroa kenduta, dagokionean) eta telefono-zenbakia.
- Markatutako zenbakien zerrendan sartzeko, sakatu behin deitzeko tekla itxaroteko moduan. Hautatu zenbaki edo izen bat, eta sakatu deitzeko tekla.
- Bilatu gordetako izen edo telefono-zenbaki bat **Kontaktuak** atalean. **Ikus “Kontaktuak kudeatzea”, 29. or.**

Dei batean bolumena doitzeko, mugitu gora edo behera.

Sarrerako deia

Sarrerako dei bati erantzuteko, sakatu deitzeko tekla. Deia amaitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla.

Sarrerako dei bat ez onartzeko, sakatu deia amaitzeko tekla. Deiaren tonua isilarazteko, hautatu **Isilik**.

Laster-teklak

Lehendabizi, esleitu telefono-zenbaki bat 2tik 9ra arteko zenbaki-tekla bakoitzari. **Ikus “Laster-teklak esleitzea”. 30. or.**

Erabili markatzeko lasterbide bat, era hauetako batean deitzeko:

- Sakatu zenbaki-tekla bat eta, gero, dei-tekla.
- **Menua > Ezarpenak > Deia > Markatze bizkorra > Piztuta** aukera hautatuta badago, luze sakatu zenbaki-tekla bat.

Ahots bidezko markaketa

Egin telefono-dei bat Agendan gordeta duzun izena esanda.

Ahots-komandoak hizkuntzaren baitan daude; beraz, ahots bidezko markaketa egin aurretik, hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Hizkuntza ezarpenak > Ahots errep. hizk.** eta zure hizkuntza.



Oharra: ahots-identifikatzaileak erabiltzea zaila suerta daiteke inguru zaratatsuetan edo larrialdiko egoera batean. Horregatik, ez fidatu ahots bidezko markaketaz bakarrik kasu guztietarako.

1. Itxaroteko moduan, luze sakatu eskuineko hautaketa-tekla. Soinu labur bat erreproduzitzen da eta **Prest sakatu, eta hitz hau(ek) esan:** oharra agertzen da.

2. Esan nori deitu nahi diozun; esan izena. Ahotsa ezagutzeko sistemak funtzionatzen badu, kointzidentzia-zerrenda bat bistaratuko da. Telefonoak zerrendako lehenbiziko kointzidentziaren ahots-komandoa erreproduzitzen du. Komandoa zuzena ez bada, zoaz beste sarrera batera.

Hitz egiten ari zarenean dituzun aukerak

Hitz egiten ari zarenean dituzun aukeretako asko sare-zerbitzuak dira. Eskuragarritasunari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Hitz egiten ari zarela, hautatu **Aukerak**. Aukera hauek eduki ditzakezu:

Dei-aukera hauek daude: **Mutututa** edo **Ez dago mutututa**, **Kontaktuak**, **Menua**, **Teklatua blokeatu**, **Grabatu**, **Audio hobekuntza**, **Bozg.** edo **Telefonoa.B**

Sareko aukerak hauek dira: **Erantz.** edo **Uko egin**, **Eusten** edo **Jarrita**, **Dei berria**, **Añadir a multiconf.**, **Deia amaitu**, **Dei guztiak amaitu.** eta ondorengo hauek:

- **DTMF bidali** — tonu-kateak bidaltzeko.
- **Trukatu** – dei aktiboa eta zain dagoen dei txandakatzeko.
- **Transfer** – zain dagoen dei bat eta aktibo dagoen beste bat konektatzeko eta ondoren deskonektatzeko.
- **Multikonferentzia** – multikonferentzia bat egiteko.
- **Dei pribatua** – elkarrizketa pribatu bat hastea multikonferentzia-dei batean.





Oharra: bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

4. Testua idaztea

Testua idazteko moduak

Testua sartzeko (adibidez, mezu bat idazten ari zarenean), erabili testua sartzeko ohiko bidea edo testu prediktiboaren metodoa.

Testua idazten duzun bitartean, sakatuta eduki **Aukerak** tekla, testua sartzeko ohiko modua  eta testu prediktiboa  txandakatzeko. Testu prediktiboa ez dute hizkuntza guztiek onartzen.

Karaktereen kasuak honela adierazten dira: **ABC**, **abc**, eta **ABC**. Letra larritik xehera edo xehetik larrira aldatzeko, sakatu #. Modu numerikotik alfabetikora aldatzeko **123**, luze sakatu # tekla, eta hautatu **Zenbaki modua**.

Zenbakizko modutik alfabetikora aldatzeko, luze sakatu # tekla.

Idazteko hizkuntza defintzeko, hautatu **Aukerak** > **Idazteko hizk.**

Ohiko bidea erabilia testua idaztea

Sakatu zenbaki-tekla bat, **2** teklatik **9** teklara, behin eta berriro nahi duzun karakterea agertu arte. Testua idazteko aukeratutako hizkuntzaren arabera karaktere batzuk edo beste batzuk bistaratzen dira.

Sartu nahi duzun hurrengo letra sartu berri duzun tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte, eta, ondoren, idatzi letra.

Puntuazio-marka eta karaktere berezietan arruntenak idazteko, sakatu **1** tekla behin baino gehiagotan edo sakatu * karaktere berezi bat hautatzeko.

Testu prediktiboarekin idaztea

Testu prediktiboaren funtzioa telefonoak duen hiztegi batean oinarrituta dago, eta hiztegi horretara hitz gehiago sar daitezke.

1. Hasi idazten hitz bat **2**tik **9**rako teklek. Letra bakoitzeko, sakatu dagokion tekla behin bakarrik.
2. Hitz bat berresteko, joan eskuinera edo jarri hutsune bat.
 - Hitz zuzena ez bada, sakatu *zenbait aldiz eta hautatu hitza zerrendan.
 - Hitzaren ondoren ? zeinua agertzen bada, idatzitako hitza ez dago hiztegian. Hiztegian sartzeko, hautatu **Idatzi**. Idatzi hitza ohiko testuaren funtzioaren bidez, eta hautatu **Gorde**.
 - Hitz konposatuak idazteko, idatzi hitzaren lehen zatia, eta joan eskuinera berresteko. Idatzi hitzaren azken zatia, eta berretsi.
3. Hasi hurrengo hitza idazten.

5. Menuetan batetik bestera mugitzea

Telefonoak funtzio ugari eskaintzen ditu, eta horiek menuetan multzokatzen dira.

1. Menura sartzeko, hautatu **Menua**.
2. Mugitu menuan eta hautatu aukera bat (adibidez, **Ezarpenak**).
3. Menuak azpimenuak badauzka, aukeratu nahi duzuna (adibidez, **Deia**).
4. Hautatutako azpimenuak beste azpimenu batzuk badauzka, egin berriz 3. urratsa.

5. Aukeratu nahi duzun ezarpena.
6. Aurreko menuaren mailara itzultzeko, hautatu **Atzera**.
Menutik irteteko, hautatu **Irten**.

Menuaren ikuspegia aldatzeko, hautatu **Aukera > Menu nag. ikusp. > Zerrenda, Sareta, Sareta etiketekin.** edo **Tab**.

Menua berrantolatzeko, joan mugitu nahi duzun menura eta hautatu **Aukera > Antolatu > Mugitu**. Menua nahi duzun tokira mugitu eta hautatu **Eginda**. Aldaketa gordetzeko, hautatu **Eginda > Bai**.

6. Mezuak

Testu-mezuak eta multimedia-mezuak, mezu elektronikoak, audio-mezuak eta flash mezuak irakurri, idatzi, bidali eta gorde ditzakezu. Sareak edo zerbitzu-hornitzaileak onartzen baditu bakarrik erabil daitezke mezu-zerbitzuak.

Testu- eta multimedia-mezuak

Mezu bat idatz dezakezu, eta, nahi izanez gero, irudi bat erantsi, adibidez. Telefonoak automatikoki bihurtzen du testu-mezu bat multimedia-mezu fitxategi bat eransten bada.

Testu-mezuak

Zure telefonoak karaktere-kopuruaren muga gainditzen duten testu-mezuak onartzen ditu. Mezu luzeagoak bi mezutan edo gehiagotan bidaltzen dira. Kasu horietan, zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da ordainketa. Azentua duten karaktereek, zeinu batzuek edo hizkuntza batzuetako karaktereek leku gehiago okupatzen dute, eta, beraz, mezu bakar batean bidal daitekeen karaktere-kopurua mugatu egiten dute.

Pantailaren goiko aldean bistaratzen den adierazle batek zehazten du guztira zenbat karaktere geratzen diren eta zenbat mezu beharko diren testua bidaltzeko.

Testu-mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzeko, aurretik mezuen zentroaren zenbakia gorde beharko duzu. Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezu-ezarpenak > Testu mezuak > Mezu zentroak > Zentroa gehitu**, eta sartu zerbitzu-hornitzailearen izena eta zenbakia.

Multimedia-mezuak

Multimedia-mezu batek testua, irudiak, soinua eta bideoklipak izan ditzake.

Funtzio bateragarriak dituzten gailuek bakarrik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuek itxura desberdina izaten dute hartzailearen gailuaren arabera.

Haririk gabeko sareak MMSen mezuen tamaina muga dezake. Sartutako irudiak muga gainditzen badu, litekeena da gailuak haren tamaina txikitzea, MMS bidez bidali ahal izateko.



Garrantzitsua: kontuz ireki mezuak. Mezuek software maltzurra izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

Multimedia-mezuen zerbitzuaren (MMS) eskuragarritasunari buruzko informazioa lortu nahi baduzu edo haren harpide izan nahi baduzu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. Konfigurazio-ezarpenak ere deskarga ditzakezu. **Ikus, "Nokiaren euskarria", 11. or.**

Testu-mezuak edo multimedia-mezuak sortzea

1. Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Mezua**.
2. Hartzaileak gehitzeko, joan **Nori**: eremura, eta sartu hartzailearen telefono-zenbakia edo helbide elektronikoa, edo, bestela, hautatu **Gehitu**, erabilgarri dauden aukeretan hartzaileak aukeratzeko. Hautatu **Aukera** hartzaileak eta gaiak gehitzeko eta bidaltzeko aukerak konfiguratzeko.
3. Joan **Testua**: eremura eta idatzi mezuaren testua.
4. Mezuari edukia eransteko, joan eranskinen barrara (pantailaren beheko aldean dago), eta hautatu nahi duzun eduki-mota.
5. Mezua bidaltzeko, sakatu **Bidali**.

Pantailaren goiko aldean adierazten da mezu-mota, eta automatikoki aldatzen da, mezuaren edukiaren arabera.

Zerbitzu-hornitzaileek kargu bat edo beste bat ezar dezakete mezu-motaren arabera. Kontsultatu zure zerbitzu-hornitzailearekin xehetasun gehiago lortzeko.

Mezuak irakurtzea eta horiei erantzutea



Garrantzitsua: kontuz ireki mezuak. Mezuek software maltzurra izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

Telefonoak jakinarazpen bat igortzen du mezu bat jasotzean. Hautatu **Ikusi** mezua irakurtzeko. Mezu bat baino gehiago jaso badituzu eta bat ikusi nahi baduzu, hautatu **Sarrera ontzia** karpetan, eta sakatu **Ireki**. Erabili desplazamendu-tekla mezuaren zati guztiak ikusteko.

Erantzuteko mezua idazteko, hautatu **Erantzun**.

Mezuak bidaltzea

Mezuak bidaltzea

Mezua bidaltzeko, aukeratu **Bidali**. Telefonoak **Irteera erretilua** karpetan gordetzen du mezua, eta bidaltzen hasten da.



Oharra: Mezua bidali dela adieraziz gailuan agertzen den testuak edo ikonoak ez du esan nahi helmugara iritsi denik.

Mezuaren bidalketa moztu egiten bada, telefonoa behin eta berriro saiatuko da bidaltzen. Bidaltzea lortzen ez baduzu, mezua **Irteera erretilua** karpetan gordeko da. **Irteera erretilua** karpetako mezuen bidalketa bertan behera uzteko, hautatu **Aukerak** > **Bidalk. ezezt.**

Bidalitako mezuak **Bidalitako elem.** karpetan gordetzeko, hautatu **Menua** > **Mezularitza** > **Mezu-ezarpenak** > **Ezarpen orokorrak** > **Mezu bidaliak gorde.**

Mezuak antolatzea

Telefonoak jasotako multimedia-mezuak **Sarrera ontzia** karpetan gordetzen ditu. Antolatuta mezuak gordetako elementuen karpetan.

Karpeta bat gehitzeko, hari izena aldatzeko edo hura ezabatzeko, hautatu **Menua** > **Mezularitza** > **Gordetako elem.** > **Aukera.**

Posta elektronikoa

Erabili telefonoa posta elektronikoko POP3 edo IMAP4 kontuetara sartzeko eta mezu elektronikoa irakurtzeko, idatzeko eta bidaltzeko. Posta elektronikoen aplikazio hori ez da SMSen posta elektronikoen funtzioaren berdina.

Funtzio hori erabiltzeko, nahitaezkoa da posta elektronikoko kontu bat eta ezarpen zuzenak izatea. Posta elektronikoko zure kontuaren erabilgarritasunari eta konfigurazioari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan posta elektronikoko zure zerbitzu-hornitzailearekin. Posta elektronikoen konfigurazio-ezarpenak konfigurazio-mezu batean jaso ditzakezu. [Ikus "Konfigurazioa doitzeko zerbitzua". 9. or.](#)

Posta elektronikoa konfiguratzeko laguntzailea

Posta elektronikoa konfiguratzeko laguntzailea automatikoki hasieratuko da, telefonoan posta elektronikoko ezarpenik definituta ez badago. Posta elektronikoko beste kontu baterako konfigurazio-laguntzailea abiarazi nahi baduzu, hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta lehendik duzun posta elektronikoko kontua. Hautatu **Aukera** > **Gehitu postontzia** posta elektronikoko konfigurazio-laguntzailea abiarazteko. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei.

Mezu elektronikoa idaztea eta bidaltzea

Posta elektronikoen zerbitzura konektatu aurretik idatz dezakezu mezua.

Mezuak

1. Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Mezu elektr.**
2. Posta elektronikoko kontu bat baino gehiago definitu baduzu, hautatu mezua zein kontutatik bidali nahi duzun.
3. Idatzi hartzailearen helbide elektronikoa eta gaia, eta idatzi mezua. Fitxategi bat eranstea, hautatu **Aukera > Gehitu** eta aukera bat.
4. Mezua bidaltzeko, aukeratu **Bidali**.

Mezu elektronikoa jasotzea eta erantzutea



Garrantzitsua: kontuz ireki mezuak. Meziek software maltzurra izan ditzakete edo telefonoa edo PCa honda dezakete.

1. Mezuen goiburukoak deskargatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza** eta zure posta elektronikoko kontua.
2. Mezu elektronikoa bat eta hari erantsitako fitxategiak deskargatzeko, hautatu mezua eta **Ireki** edo **Berresk.**
3. Mezu elektronikoa bati erantzuteko edo birbidaltzeko, hautatu **Aukera** eta aukera bat.
4. Posta elektronikoko kontutik deskonektatzeko, hautatu **Aukera > Programa utzi**. Posta elektronikoko kontura egindako konexioa automatikoki amaituko da denbora batez geldirik egonez gero.

Mezu elektronikoa berrien jakinarazpenak

Telefonoak posta elektronikoa automatikoki kontsulta dezake maiztasun jakin batekin, eta jakinarazpen bat bidal diezazuke mezu berriren bat jaso baduzu.

1. Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezu-ezarpenak > E-mail mezuak > Editatu postontziak**.
2. Hautatu zure posta elektronikoko kontua, **Ezarpenak deskargatzen** eta aukera hauek:
 - **Postzi. egune.-maizt.** – telefonoak, mezu berriak dagoen jakiteko, posta elektronikoa zer maiztasunekin kontsultatuko duen ezartzeko.
 - **Berresk. automatikoa** – posta elektronikoko kontutik mezu berriak automatikoki berreskuratzeke.
3. Mezu elektronikoa berrien jakinarazpenak bidaltzea gaitzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Mezu-ezarpenak > E-mail mezuak > E-mail jakzp.berria > Piztuta**.

Flash mezuak

Flash mezuak jaso orduko bistaratzen diren testu-mezuak dira.

1. Flash mezu bat idazteko, hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Flash mezu**.
2. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia, idatzi mezua (70 karakterekoa, gehienez), eta hautatu **Bidali**.

Nokia Xpress-en audio-mezuak

Erraz sortu eta bidali audio-mezuak MMS erabilita.

1. Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezua sortu > Audio mezu**. Grabagailua irekiko da.
2. Grabatu mezua. Ikus 'Grabagailua', 45. or.
3. Sartu telefono-zenbaki bat edo gehiago **Nori**: eremuan, edo hautatu **Gehitu** zenbaki bat berreskuratzeke.
4. Mezua bidaltzeko, aukeratu **Bidali**.

Berehalako mezuak

Berehalako mezularitzari esker (sareko zerbitzua), mezu laburrak bidali ahal izango dizkiezu lineako erabiltzaileei. Zerbitzuan harpidetu eta erabili nahi duzun berehalako mezularitzaren zerbitzuan erregistratu beharko duzu. Kontsultatu zerbitzu horien erabilgarritasuna, prezioa eta jarraibideak zerbitzu-hornitzaileari. Menuak desberdinak izan daitezke BMren hornitzailearen arabera.

Zerbitzura konektatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Berehal. mezuak** eta jarraitu pantailako jarraibideei.

Informazio-mezuak, SIM mezuak eta zerbitzu-komandoak

Informazio-mezuak

Askotariko gaiei buruzko mezuak jasoko dituzu zure zerbitzu-hornitzailetik (sareko zerbitzuak). Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. Hautatu **Menua > Mezularitza > Info mezuak** eta dauden aukeretako bat.

Zerbitzu-komandoak

Zerbitzu-komandoen bidez, zerbitzu-eskaerak idatzi eta bidal diezazkiokezu (USSD komandoak) zerbitzu-hornitzaileari, esaterako, sare-zerbitzuetarako komandoak aktibatzea. Oharrak idazteko eta bidaltzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Zerb.-komand.** Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

SIM mezuak

SIM txartelean gordetzen diren testu-mezu espezifikokoak dira SIM mezuak. Mezu horiek SIM memoriatik telefonoaren memoriara kopiatu edo eraman ditzakezu; ez, ordea, alderantziz.

SIM mezuak irakurtzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Aukera > SIM mezuak**.

Ahots-mezuak

Baliteke harpidetu behar izatea ahots-postontzia erabiltzeko. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Ahots-postontzira deitzeko, luze sakatu **1** tekla.

Ahots-postontziaren zenbakia editatzeko, hautatu **Menua > Mezularitza > Ahots mezuak > Ahots-postontzi. zkia**.

Mezuen ezarpenak

Hautatu **Menua > Mezularitza > Mezu-ezarpenak** eta aukera hauetako bat:

- **Ezarpn orokorrak** – kopiak gordetzeko edo telefonotik mezuak bidaltzeko, mezua gordeta dagoen memoria beteta badago mezu zaharren gainean idazteko eta mezuei lotutako beste zenbait lehenespen konfiguratzeko.
- **Testu mezuak** – txostenak bidaltzen uzteko, mezu-zentroak konfiguratzeko SMS mezuak eta SMS posta erabiltzeko, bateragarriak diren karaktere-motak hautatzeko eta testu-mezuei lotutako beste zenbait lehenespen konfiguratzeko.
- **Multim. mezuak** – entregatu izanaren txostenak bidaltzen uzteko, multimedia-mezuen itxura konfiguratzeko, multimedia- eta publizitate-mezuak jasotzea onartzeko eta multimedia-mezuei lotutako beste lehentasun batzuk konfiguratzeko.
- **E-mail mezuak** – Posta elektronikoa jasotzen uzteko, eta posta elektronikoko irudien neurria eta horri lotutako beste zenbait lehenespen konfiguratzeko.
- **Zerbitzu mezuak** – zerbitzu-mezuak aktibatzeko eta horiei lotutako lehenespenak konfiguratzeko.


7. Kontaktuak

Izenak eta telefono-zenbakiak kontaktu gisa gorde ditzakezu telefonoaren eta SIM txartelaren memorian, gero, telefono-deiak egitean edo mezu bat bidaltzean bilatzeko eta berreskuratzeko.

Kontaktuak kudeatzea

Kontaktuentzako memoria hautatzea


Telefonoaren memorian kontaktuak eta horien xehetasun gehigarriak gorde daitezke, kasurako, hainbat zenbaki eta testu-elementuak. Halaber, irudi, tonu edo bideoklip bat gorde daiteke kontaktu-kopuru jakin baterako.

SIM txartelaren memoriak izenak eta horiei atxikitako telefono-zenbakiak gorde ditzake. SIM txartelaren memorian sartutako kontaktuak  ikonoaren bidez adierazten dira.

Hautatu **Menua > Kontaktuak > Ezarpenak > Memoria erabiltzen. Telefonoa** eta **SIM** hautatzean, kontaktuak telefonoaren memorian gordeko dira.

Izenak eta zenbakiak gordetzea

Izen bat eta telefono-zenbaki bat gordetzeko, hautatu **Menua > Kontaktuak > Izenak > Aukera > Kontak. berr. gehi**.

Gordetako lehen zenbakia automatikoki definitzen da aurrez zehaztutako zenbaki gisa, eta zenbaki-motaren adierazlearen inguruan marko bat jarrita adierazten da (adibidez, ). Aurkibideko izen bat aukeratzean (adibidez, dei bat egiteko), aurrez definitutako zenbakia erabiltzen da, baldin eta beste zenbaki bat aukeratzen ez bada.

Kontaktua bilatzea

Hautatu **Menua > Kontaktuak > Izenak** eta ikusi kontaktuen zerrenda edo sartu aurkitu nahi duzun izenaren lehen letra.

Xehetasunak gehitzea eta editatzea

Kontaktu bati xehetasunak gehitzeko edo aldatzeko, hautatu **Xehet. > Aukera > Gehitu xehetasun.** eta erabilgarri dauden aukeretako bat.

Kontaktuak kopiaatzea edo mugitzea SIMetik telefonoaren memoriara eta alderantziz

1. Hautatu **Menua > Kontaktuak > Izenak**.
2. Hautatu kopia edo lekuz aldatu nahi duzun kontaktua eta **Aukera > Kontak.kopiatu** edo **Kontaktua mugitu**.

Kontaktuak kopiaatzea edo mugitzea SIMetik telefonoaren memoriara eta alderantziz

1. Hautatu kopia edo lekuz aldatu nahi duzun lehen kontaktua, eta, ondoren **Aukera > Markatua**.
2. Markatu gainerako kontaktuak eta hautatu **Aukera > Kopia markatuta** edo **Markatua mugitu**.

Kontaktu guztiak kopiatzea edo mugitzea SIMetik telefonoaren memoriara eta alderantziz

Hautatu **Menua > Kontaktuak > Kontak. kopiatu** edo **Kontaktua mugitu**.

Kontaktuak ezabatu

Hautatu kontaktua eta **Aukera > Kontaktua ezezt.**

Telefonoko edo SIM txartelaren memoriako kontaktu guztiak ezabatzeko, hautatu **Menua > Kontaktuak > Ezb. ktk. guztiak > Tel. memoriatik** edo **SIM txarteletik**.

Kontaktuari atxikitako zenbaki bat, testu-elementu bat edo irudi bat ezabatzeko, bilatu kontaktua eta hautatu **Xehetasunak**. Joan nahi duzun xehetasunera eta hautatu **Aukera > Ezabatu** eta aukera hauetako bat.

Kontaktu-taldeak sortzea

Antolatu kontaktuak dei-egileen taldeen arabera, eta ezarri talde bakoitzari bere dei-tonua eta irudia.

1. Hautatu **Menua > Kontaktuak > Taldeak**.
2. Talde berri bat sortzeko, hautatu **Gehitu** edo **Aukerak > Talde berria gehi**.
3. Idatzi taldearen izena, hautatu irudi bat, nahi izanez gero, eta dei-tonu bat, eta hautatu **Gorde**.
4. Hautatu taldea eta **Ikusi > Gehitu**, taldean kontaktuak sartzeko.

Bisita-txartelak

Pertsona baten harremanetarako informazioa bidal eta jaso dezakezu vCard estandarra onartzen duen gailu bateragarri baten bidez.

Bisita-txartel bat bidaltzeko, aurkitu bidali nahi duzun kontaktu-informazioa eta hautatu **Xehetasunak > Aukera > Bisita txart. bidali**.

Bisita-txartel bat jasotakoan, hautatu **Bistaratu > Gorde**, bisita-txartela telefonoaren memorian gordetzeko.

Laster-teklak esleitzea

Sortu laster-teklak 2tik 9ra arteko zenbaki-teklei telefono-zenbakiak esleituta.

1. Hautatu **Menua > Kontaktuak > Mark lasterrak**, eta zoaz zenbaki-tekla batera.
2. Hautatu **Esleitu**, edo tekla horri lehendik esleitu baldin bazaio zenbaki bat, hautatu **Aukera > Aldatu**.
3. Sartu zenbaki bat edo bilatu kontaktu bat.

Zure deiei, mezuei, datuei eta sinkronizazioari buruzko informazioa ikusteko, hautatu

Menua > Erregistroa eta aukera bat.

8. Dei-erregistroa

Zure deiei, mezuei, datuei eta sinkronizazioari buruzko informazioa ikusteko, hautatu

Menua > Erregistroa eta aukera bat.



Oharra: zerbitzu-hornitzailearen deien eta zerbitzuen benetako faktura aldatu egin daiteke sarearen ezaugarrien, fakturazioen biribiltzeen, zergen eta abarren ondorioz.

9. Kokapen-erregistroa

Baliteke sareak kokapen-eskaera bat bidaltzea (sareko zerbitzua). Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin zerbitzura harpidetzeko eta kokapearen informazioa emateari buruz ados jartzeko.

Kokapen-eskaera onartzeko edo ukatzeko, aukeratu **Onartu** edo **Ezetsi**. Eskaera jaso duzula konturatzen ez bazara, telefonoak onartu edo ukatu egingo du automatikoki, sare-operadorearekin edo zerbitzu-hornitzailearekin hitzartutakoaren arabera.

Azken 10 jakinarazpenei edo pribatutasun-eskaerei buruzko informazioa ikusteko edo horiek ezabatzeko, hautatu **Menua > Erregistroa > Kokapena > Kokapen-log-a**.

10. Konektagarritasuna

Telefonoak zenbait funtzio ditu beste gailu batzuekin konektatu eta datuak igortzeko eta jasotzeko.

Bluetooth haririk gabeko teknologia


Bluetooth teknologiaren bidez telefonoa Bluetooth gailu bateragarri batekin konekta dezakezu irriti-uhinen bidez, 10 metroko erradio baten barruan (32 oin).

Gailu hau Bluetooth 2.0+ EDR zehaztapenarekin batera daiteke, eta profil hauek onartzen ditu: 2.0 + EDR sarbide orokorra, sareko sarbidea, objektu orokorren trukea, audio-banaketa aurreratua, urruneko audio- eta bideo-kontrola, esku libreak, esku libreko kit eramangarria, objektuak bultzatzea, fitxategien transferentzia, dei-sarea, SIMerako sarbidea eta serieko ataka. Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekin erabil daitekeela bermatzeko, erabili modelo honetarako Nokiak onartutako ekipoak bakarrik. Egiaztatu fabrikatzaileekin ekipo honekin zein gailu erabil daitekeen.

Bluetooth teknologia erabiltzen duten funtzioek batera gehiago behar izaten dute, eta bateriak gutxiago irauten du.

Bluetooth konexio bat konfiguratzeko

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektibitatea > Bluetootha** eta aukera hauek:

1. Hautatu **Telefonoaren iz.** eta sartu telefonoaren izena.
2. Bluetooth bidezko konexioa aktibatzeko, hautatu **Bluetooth > Piztuta.**  ikonoak Bluetooth-a aktibatuta dagoela adierazten du.
3. Telefonoa audio-osagarri batera konektatzeko, hautatu **Aud. osagarri. konek.** eta konektatu nahi duzun gailua.
4. Telefonoa ekintza-erradioko edozein Bluetooth gailurekin konektatzeko, hautatu **Gailu parekatuak > Gailu berria gehitu.**
Joan aurkitutako gailu batera, eta hautatu **Gehitu.**
Sartu pasahitza (16 karaktere, gehienez) telefonoan, eta onartu beste Bluetooth gailuarekin konektatzea.

Segurutasunak kezkatzen bazaitu, desaktibatu Bluetooth funtzioa edo hautatu **Nire telef. ikuspena** aukeran **Ezkutatuta.** Konfiantzazko erabiltzaileekin bakarrik onartu Bluetooth komunikazioa.

PCtik Interneterako konexioa

Erabili Bluetooth teknologia PC Suite software-rik gabe zure PC bateragarria Internetera konektatzeko. Telefonoak aktibatuta eduki behar du zerbitzu-hornitzaile bat, Interneteko sarbidea onar dezan, eta ordenagailuak Bluetooth PAN (Personal Area Network) onartu beharko du. Telefonoaren sarera sartzeko puntuaren zerbitzura konektatzen denean (NAP) eta PCrako lotura gauzatu denean, automatikoki irekiko da Interneteko datu-paketeen konexioa.

Datu-paketeak

GPRS teknologia (General Packet Radio Service edo pakete bidezko irrati-zerbitzua) sare-zerbitzu bat da, eta, horri esker, telefono mugikorra erabil daiteke Interneteko protokoloan (IP) oinarritutako sare baten bidez datuak bidaltzeko eta jasotzeko.

Zerbitzua nola erabili definitzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektibitatea > Pakete datuak > Fardel-datuaren konex.** eta aukera hauetako bat:

- **Behar denean** – aplikazio batek behar duenean datu-paketeen konexioa ezartzeko. Aplikazioa amaitutakoan moztuko da konexioa.
- **Beti sarean** – telefonoa piztean datu-pakete batekin zuzenean automatikoki konekta dadin

Telefonoa modem gisa erabili ahal izango duzu, Bluetooth teknologia edo USB kable bat erabilita bateragarria den PC bati konektatuta.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Nokia PC Suite-ren dokumentazioa. [Ikus, "Nokiaren euskarria", 11. or.](#)

USB datu-kablea

USB datu-kablea erabil dezakezu datuak transferitzeko telefonoaren eta PC bateragarri baten artean edo inprimagailu bateragarri (PictBridge) baten artean.

Telefonoa datu-transmisiorako edo irudiak inprimatzeko aktibatzeko, konektatu datu-kablea eta hautatu modua.:

- **Konexioan galde** – konexioa egin behar den galdetzen du telefonoak
- **PC Suite** – PC Suite-rako kablea erabiltzeko
- **Inprim. eta multim.** – telefonoa PictBridge inprimagailu edo PC bateragarri batekin erabiltzeko
- **Datuak gordetzea** – Nokia programarik ez duen PC batekin konektatzeko eta telefonoa datuak gordetzeko gailu gisa erabiltzeko.

USB modua aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konektibitatea > Datu kablea** eta nahi duzun USB modua.

Sinkronizazioa eta segurtasun-kopia

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Sink. eta s. kopia** eta aukera hauetako bat:

- **Tel.aldaketa.** – hautatutako datuak zure telefonoaren eta beste telefono baten artean Bluetooth bidez sinkronizatze edo batetik bestera kopiatzeko
- **Seg. kopia egin** – hautatutako datuen segurtasun-kopia sortzeko, memoria-txartelean edo kanpoko gailu batean.
- **S. kopia berresk.** – memoria-txartelean edo kanpoko gailu batean gordetako segurtasun-fitxategi bat hautatzeko eta telefonoan berrezartzeko. Hautatu **Aukeratu > Xehetasunak** hautatutako segurtasun-kopiaren fitxategiari buruzko informazio gehiago lortzeko.
- **Datu transferentzia** – zure telefonoaren eta beste gailu baten, PC baten edo sare zerbitzari baten artean (sare-zerbitzua) hautatutako datuak sinkronizatze edo batetik bestera kopiatzeko.

Nokia PC Suite

Nokia PC Suite-rekin, musika kudea dezakezu, eta aurkibidea, agenda, oharrak eta zereginen oharrak sinkroniza ditzakezu telefonoaren eta PC bateragarriaren edo urruneko Internet zerbitzari baten artean (sare-zerbitzua). PC Suite bera eta informazio gehiago dituzu Nokiaren web gunean. [Ikus, "Nokiaren euskarria", 11. or.](#)

11. Ezarpenak

Moduak

Telefonoak hainbat ezarpen-talde ditu (profilak izenekoak), eta dei-tonuak talde horien arabera pertsonaliza daitezke, egoeraren eta inguruaren arabera.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Profilak**, nahi duzun modua eta aukera hauetako bat:

- **Aktibatu** – hautatutako modua aktibatuzeko.
- **Pertsonalizatu** – moduaren ezarpenak aldatzeko
- **Tenporizatu**—modua denbora-tarte batean aktibo egoteko definitzeko. Modu horretarako finkatutako denbora amaitzen denean, berriro aktibatu egingo da inolako denbora-mugarik ez zuen aurreko modua.

Gaiak

Telefonoa pertsonalizatzeko elementuak dituzte gaiak.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Gaiak** eta aukera hauetako bat:

- **Gaia aukeratuta** – Ireki **Gaiak** karpeta, eta hautatu gaia.
- **Gaiaren deskarg.** – gai gehiago deskargatzeko aukera ematen duten esteken zerrenda irekitzeko.

Tonuak

Hautatutako modu aktiboko tonuen ezarpenak alda ditzakezu.

Aukeratu **Menua > Ezarpenak > Tonuak. Profilak** menuan ere aukera berberak daude.

Dei-tonuaren maila altuena hautatzen baduzu, maila gorena segundo gutxiren buruan hartuko du.

Pantailaren ezarpenak

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Pantaila** eta dauden aukeretako bat:

- **Horma papera** – itxaroteko moduko pantailaren hondoko irudia eransteko.
- **Egonean aktibo** – itxaroteko modu aktiboa aktibatuzeko, antolatuzeko eta pertsonalizatzeko
- **Egoneko letr.kolorea** – itxaroteko moduan letra-kolorea hautatzeko

- **Nabi. teklen ikonoak** — itxaroteko modu aktiboa desaktibatuta dagoenean, itxaroteko moduan desplazamendu-teklak duen lasterbidearen ikonoak bistartzeko.
- **Jakinarazp-xehetas.** – mezuen eta galdutako deien abisuetan informazio xehatua ikusteko
- **Trantsizio-efektuak** – nabigazio-esperientzia organikoagoa eta naturalagoa aktibatzen.
- **Pantaila babesa** – pantaila-babes bat sortzeko eta ezartzeko.
- **Letra tamaina** – mezuen, kontaktuen eta web orrien zerrendako letra-tamaina zehazteko.
- **Operadorearen logoa** – operadorearen logotipoa bistartzeko.
- **Telefono info bistan** – zelula-identitatea bistartzeko, sarean erabilgarri dagoenean.

Eguna eta ordua

Erloju-mota, ordu-ezarpenak, ordu-eremua eta data aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Data eta ordua**.

Beste ordu-eremu batera joaten bazara, hautatu **Menua > Ezarpenak > Data eta ordua > Egun- eta ordu-ezarp. > Ordu-eremua**; eta mugitu ezkerrera edo eskuinera zure kokalekuko ordu-eremua hautatzeko. Ordua eta data ordu-eremuaren arabera konfiguratzen dira, eta, hala, jasotako testu-mezuen edo multimedia-mezuen bidalketa-ordu zuzena bistaritzen du telefonoak.

Adibidez, GMT-5 New Yorkeko ordu-eremuari dagokio (AEB), 5 ordu Greenwichetik/ Londresetik (Erresuma Batua) mendebaldera.

Nire lasterbideak

Lasterbide pertsonalen bidez gehien erabiltzen diren telefonoaren funtzioetara bizkor sar zaitezke.

Ezkerreko eta eskuineko hautaketa-teklak

Ezkerreko edo eskuineko hautatzeko teklari esleitutako funtzioa aldatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Nire lasterbid. > Ezkerreko auk. tekla** edo **Eskuin aukerak. tekla** eta funtzioa.

Itxaroteko moduan, ezkerreko hautaketa-tekla funtzioa aktibatzen **Hona joan** bada, hautatu **Hona joan > Aukera** eta aukera hauetako bat:

- **Hautatu aukerak** – funtzio bat sartzeko edo ezabatzen
- **Antolatatu** – funtzioak berriro antolatzen

Beste zenbait lasterbide

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Nire lasterbid.** eta aukera hauetako bat:

Ezarpenak

- **Nabigazio tekla** – nabigazio-teklari (desplazamendu-tekla) aurrez zehaztutako zerrenda batetik beste zenbait funtzio esleitzeko
- **Egon. aktiboko giltza** – itxaroteko modu aktiboa aktibatzen nabigazio-teklaren mugimendua hautatzeko.

Deiaren ezarpenak

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Deia** eta aukera hauetako bat:

- **Dei desbiderapena** – sarrerako deiak desbideratzeko (sare-zerbitzua). Baliteke deiak desbideratzerik ez izatea, deiak murrizteko hainbat funtzio aktibatuta badaude. **Ikus “Segurtasuna”. 39. or.**
- **Edozein tekl. erantz.** – dei bati edozein tekla labur sakatuta erantzuteko (eskuineko eta ezkerreko hautaketa-teklak, pizteko tekla eta deia amaitzeko tekla izan ezik)
- **Autom. birmarkatu** – deian erroreren bat gertatuz gero zenbakia automatikoki berriro markatzeko. Telefonoa 10 aldiz saiatuko da berriro deitzen.
- **Audio hobekuntza** – batik bat ingurune zaratsuetan diskurtsoa hobeto ulertzeko
- **Markatze bizkorra** – 2tik 9rako markaketa bizkorreko teklei esleitutako izenak eta telefono-zenbakiak markatzeko, dagokien zenbaki-tekla luze sakatuta.
- **Itxaron deia** — hitz egiten ari zaren bitartean sareak beste deirik dagoen ohartarazteko (sare-zerbitzua)
- **Deiaren iraup. bistar.** – Hautatu **Piztuta** uneko deiaren iraupena bistaratzeko.
- **Laburp.deiaren ond.** – azken deiaren gutxi gorabeherako iraupena labur bistaratzeko
- **Bidali nire de-eg.IDa** — deitzen diozunari zure telefono-zerbitzua erakusteko (sare-zerbitzua) Zerbitzu-hornitzailearekin adostutako ezarpenak erabiltzeko, hautatu **Sareak ezarrita**.
- **Irteera-deiaren linea** – dei bat egitean telefono-linea hautatzeko, baldin eta SIM txartelak telefono-linea bat baino gehiago onartzen baditu (sare-zerbitzua).

Telefonoa

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa** eta aukera hauetako bat:

- **Hizkuntza ezarpenak** –telefonoaren hizkuntza definitzeko, hautatu **Tel.aren hizkuntza**. **Automatiko** aukeraren bidez, SIM txartelaren informazioarekin bat egiten duen hizkuntza hautatzen da. Ahots-komandoaren hizkuntza hautatzeko, aukeratu **Ahots errep. hizk.**
- **Memoria egoera** – zenbat memoria erabili den ikusteko

- **Tekl. blokeo automat.** – aurrez zehaztutako denbora-tartea igarotakoan teklatura automatikoki blokeatzeko, telefonoa deiak egiteko/jasotzeko egoeran dagoela funtziorik erabili ez denean.
- **Segurt. tekla.-babeslea** – teklatura desblokeatzeko segurtasun-kodea eskatzeko moduan konfiguratzeko.
- **Ahots-azterketa** – Ikus 'Ahots-komandoak', 37. or.
- **Hegaldi kontsulta** – telefonoa piztean hegazkin-modua erabili behar duen galdetzeko. Hegaldiko modua aktibatuta dagoenean, irrati-konexioak desaktibatuta egiten dira.
- **Telef.-eguneratzeak** – zerbitzu-hornitzaileak telefonoaren softwarea eguneratuta bidaltzeko (sare-zerbitzua). Telefono batzuetan, litekeena da aukera hau erabilgarri ez egotea. Ikus "Softwarea uhin bidez eguneratzea", 38. orrialdean.
- **Operadore-aukerake.** – zure eremuan eskuragarri dagoen sare zelular bat definitzeko
- **Lgnntza.-testuen aktib.** – telefonoak laguntzako testuak bistaratzea nahi duzun hautatzeko
- **Abian jartze tonua** – piztean telefonoak tonu bat jo dezan
- **Egiatz. SIM ekintzak** – (sare-zerbitzua). Ikus "SIM zerbitzuak", 51. or.

Ahots-komandoak

Deitu kontaktuei eta erabili zure telefonoa ahots-komandoen bidez.

Ahots-komandoak hizkuntzaren arabera dira. Hizkuntza aukeratzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Hizkuntza ezarpenak > Ahots errep.hizk.** eta nahi duzun hizkuntza.

Ahotsa ezagutzeko funtzioa zure ahotsa ezagutzen trebatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Ahots-azterketa > Ahots-azt. praktikatu.**

Funtzio baterako ahots-komando bat aktibatzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Ahots-azterketa > Ahots-komandoak**, funtzio bat eta ondorengo funtzio bat.

Ahots-komandoa aktibatzeko, hautatu **Gehitu**. Ahots-komando aktibatua erreproduzitzeko, hautatu **Errepro..**

Ahots-komandoak erabiltzeko, ikus "Ahots bidezko markaketa", 20. orrialdean.

Ahots-komandoak kudeatzeko, joan funtzio batera eta hautatu **Aukera** eta aukera hauetako bat:

- **Editatu** edo **Ezabatu** – izena aldatzeko edo ahots-komandoa desaktibatzeko
- **Guztiak gehitu** edo **Guztiak ezabatu** — ahots-komandoen zerrendako funtzio guztien ahots-komandoak aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Ekipamendua

Telefonoa ekipamendu mugikor bateragarri batera konektatuta bada edo konektatu bada, menu hau edo aukera hauek aterako dira.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Hobekuntzak**. Hautatu ekipamendua eta, dagokionaren arabera, aukera hauetako bat:

Konfigurazioa

Zure telefonoan zerbitzu batzuetarako behar dituzun ezarpenak konfiguratu ditzakezu. Zerbitzu-hornitzaileak bidal diezazkizuke ezarpen horiek. **Ikus “Konfigurazioa doitzeko zerbitzua”. 9. or.**

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Konfigurazioa** eta aukera hauetako bat:

- **Konfig.-ezarp.lehnts.** – telefonoan gordetako zerbitzu-hornitzaileak ikusteko eta zerbitzu-hornitzaile jakin bat ezartzeko.
- **Akt lehtsi. aplik. guz.** – konfigurazio-ekarpen lehenetsiak aktibatzen, bateragarri diren aplikazioetarako.
- **Sargune gustukoena** – gordetako sarbide-puntuak ikusteko.
- **Kon. laguntz.-zerbitz.** – zerbitzu-hornitzailetik konfigurazio-ekarpenak deskargatzeko.
- **Gailu-kudeatz. ezarp.** – telefonoak softwarearen eguneratzeak jaso ditzan edo ez. Telefono batzuetan, litekeena da aukera hau erabilgarri ez egotea. **Ikus “Softwarea uhin bidez eguneratzea”, 38. orrialdean.**
- **Konfig.-ezrp.pertson.** – hainbat zerbitzuetarako kontu pertsonal berriak eskuz gehitzeko, aktibatzen edo ezabatzen. Kontu pertsonal berri bat sartzeko, hautatu **Gehitu**, edo **Aukera > Ber.gehi**. Aukeratu zerbitzu-mota eta sartu behar diren parametroak. Kontu pertsonal bat aktibatzen, joan konturaino eta hautatu **Aukera > Jarrita**.

Softwarea uhin bidez eguneratzea

Litekeena da zerbitzu-hornitzaileak telefonoaren softwarearen eguneratzeak zuzenean uhin bidez bidaltzea telefonora (sare-zerbitzua). Telefono batzuetan, litekeena da aukera hau erabilgarri ez egotea.

Softwarea eguneratzeko deskargan datu-bolumen handia transmiti daiteke zerbitzu-hornitzailearen sarearen bidez. Datu-transmisioen karguei buruzko informazioa izateko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Egiaztatu gailuko bateria kargatuta dagoela. Bestela, konektatu kargagailua eguneratzen hasi aurretik.



Oharra: Softwarea eguneratzeko instalatzen duzunean, ezingo duzu gailua erabili (larrialdi-deiak egiteko ere ez), eguneratzea amaitu eta gailua berrabiarazi arte. Ahaztu gabe, egin datuen segurtasun-kopiak eguneratu aurretik.

Softwarea eguneratzeko ezarpenak

Telefono batzuetan, litekeena da aukera hau erabilgarri ez egotea.

Telefonoaren softwarearen eta konfigurazioaren eguneratzea onartzeko edo ez onartzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Konfigurazioa > Gailu-kudeatz. ezarp > Horn. softw. eguner.**

Softwarea eguneratzeko eskatzea

1. Hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Telef.-eguneratzeak** zure telefonorako softwarea eguneratuta eskatzeko zerbitzu-hornitzaileari.
2. Hautatu **Uneko softw. xehet.** softwarearen azken bertsioa bistartzeko eta eguneratzea behar duen ikusteko.
3. Hautatu **Desk. tel. softwarea** telefonoaren softwarea eguneratuta deskargatzeko eta instalatzeko. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei.
4. Deskargatu ondoren instalazioa bertan behera utzi baduzu, hautatu **Instal. softw.-eguner.** instalatzen hasteko.

Softwarea eguneratzen hainbat minutu pasatuko du. Instalatzeko garaian arazoak detektatuz gero, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Segurtasuna

Deiak mugatzen dituzten segurtasun-ezaugarriak aktibatuta daudenean (adibidez, deiak blokeatzea, erabiltzaile-talde txikia eta markaketa finkoa), deitu daiteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbaki ofizialera.

Hautatu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna** eta aukera hauetako bat:

- **PIN kode eskaera edo UPIN kode eskaera** — telefonoak pizten duzun bakoitzean PINa edo UPINa eska diezazun SIM txartel batzuek ez dute kodearen eskaera desaktibatzen uzten.
- **PIN2 kode eskaera** – kode horren bitartez babestutako telefonoaren funtzio jakin batzuk erabiltzean PIN2 kodea eskatu behar duen zehazteko. SIM txartel batzuek ez dute kodearen eskaera desaktibatzen uzten.
- **Dei-murrizk. zerb.** – telefonoaren sarrerako eta irteerako deiak murrizteko (sare-zerbitzua). Ezinbestekoa da murriztapenen pasahitza.
- **Markatzea finkatuta** – telefono-zenbaki jakinetara egindako deiak murrizteko, baldin eta SIM txartelak funtzio hori badu. Markaketa finkoa aktibatuta dagoenean, ezin da GPRS konexiorik egin, testu-mezuak GPRS konexio bitartez bidaltzen direnean izan ezik. Kasu horretan, dei-hartzailearen telefono-zenbakia eta mezu-zentroaren zenbakia markatze finkoko zerrendan sartuta egon behar dute.
- **Erabiltz.-talde itxia** – zuri deitzeko edo zuk deiak egiteko aukera duten pertsona-taldea zehazteko da (sare-zerbitzua).
- **Segurtasun maila** – Aukeratu **Telefonoa**, SIM txartel berri bat sartzen duzun bakoitzean telefonoak segurtasun-kodea eskatzeko. Hautatu **Memoria**, segurtasun-kodea eska diezazun SIM txarteleko memoria hautatzen duzunean eta erabiltzen ari zaren memoria aldatu nahi duzunean.

Operadorearen menua

- **Sarbide kodeak** – segurtasun-kodea, PIN kodea, UPIN kodea, PIN2 kodea eta murrizketa-pasahitza aldatzeko.
- **Kodea erabiltzen** – PIN edo UPIN kodeak aktibatuta egon behar duen aukeratzeko.
- **Autorit. ziurtagiriak** edo **Erabiltz. ziurtagiriak** – telefonoan deskargatutako baimen-ziurtagirien edo erabiltzaile-ziurtagirien zerrenda ikusteko. [Ikus “Nabigatzailearen segurtasuna”, 47. or.](#)
- **Segurt. modul.ezarp.** — **Segurt.-modul. xehet.** ikusteko, **Modulu PIN eskaera** aktibatzeko edo moduluaren PINa eta sinaduraren PINa aldatzeko. [Ikus ‘Sarbide-puntuak’, 9. or.](#)

Jatorrizko konfigurazioa leheneratzea

Jatorrizko baldintzak leheneratzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Berr.fabr.ezarp.** eta aukera hauetako bat:

- **Berez. ezarp. soilik** – informazio pertsonalik ezabatu gabe lehentasunezko konfigurazio guztiak leheneratzeko
- **Guztiak berrezarri** – lehenespenezko ezarpen guztiak hasieratzeko eta datu pertsonal guztiak ezabatzeko (kontaktuak, mezuak, multimedia fitxategiak eta aktibatutako tekla)

12. Operadorearen menua

Zure sare-operadoreak eskaintzen dizun zerbitzu-atarira sartzeko aukera ematen ditu. Informazio gehiago eskuratzeko, jar zaitez harremanetan zure sare-operadorearekin. Operadoreak menu hori egunera dezake, zerbitzu-mezu bat bidalita.

13. Galeria

Irudiak, bideoklipak, musika-fitxategiak, gaiak, grafikoak, tonuak, grabazioak eta jasotako fitxategiak kudea ditzakezu menu honetan. Fitxategi horiek telefonoaren memorian edo memoria-txartelean gordetzen dira, eta karpetetan antola daitezke.

Karpetak eta fitxategiak

Karpeta-zerrenda ikusteko, hautatu **Menua > Galeria**. Karpeta bateko fitxategien zerrenda ikusteko, aukeratu karpeta eta **Ireki**. Fitxategi bat mugitzean memoria-txarteleko karpetak ikusteko, zoaz memoria-txartelera eta sakatu eskuineko desplazamendu-tekla.

Irudiak inprimatzea

.jpeg formatua duten irudiak inprimatzeko Nokia XpressPrint onartzen du zure telefonoak.

1. Telefonoa inprimagailu bateragarri batera konektatzeko, erabili datu-kablea edo bidali irudia Bluetooth bidez teknologia hori onartzen duen inprimagailu batera. Ikus “Bluetooth haririk gabeko teknologia”, 31. or.
2. Hautatu inprimatu nahi duzun irudia eta **Aukera > Inprimatu**.


Memoria-txartela

Multimedia-fitxategiak (bideoklipak, musika-pistak eta soinu-fitxategiak), irudiak eta mezularitza-datuak gordetzeko erabil dezakezu memoria-txartela.


Memoria-txartelean gorde daitezke telefonoak erabiltzen dituen fitxategidun **Galeriako** karpeta batzuk (esaterako, **Gaiak** karpeta).

Memoria-txartela formateatzea

Memoria-txartel batzuk formatuarekin merkaturatzen dira, baina beste batzuk formateatu egin behar dira. Memoria-txartela formateatzean, datu guztiak behin betiko ezabatzen dira.

1. Memoria-txartela formateatzeko, hautatu **Menua > Galeria** edo **Aplikazioak**, memoria-txartelari dagokion karpeta  eta **Aukerak > Memoria txartela formateatu > Bai**.
2. Formateatzeko prozesua amaitutakoan, idatzi izena memoria-txartelarentzat.

Memoria-txartela blokeatzea

Memoria-txartela blokeatzeko eta baimendu gabeko erabileratik babesteko, hautatu memoria-txartela  eta **Aukerak > Pasahitza ezarri**.

Pasahitza telefonoan gordeko da eta ez duzu berriro idatzi beharrik memoria txartel hori telefono berean erabiltzen duzun bitartean. Memoria-txartela beste telefono batean erabili nahi baduzu, pasahitza eskatuko dizu.

Pasahitza ezabatzeko, hautatu **Aukera > Pasahitza ezabatu**.

Memoriaren kontsumoa kontsultatzea

Datu-taldeen memoria-kontsumoa eta memoria-txartelean aplikazio eta software berria instalatzeko erabilgarri dagoen memoria ikusteko , hautatu **Aukera > Xehetasunak**.

14. Multimedia

kamera eta -bideoa

Mugikorrek duen kamerarekin argazkiak atera ditzakezu eta bideoklipak grabatu.

Argazkiak ateratzea

Irudi estatikoko funtzioa erabiltzeko, hautatu **Menua > Media > Kamera**, edo bideo-funtzioa aktibatuta badago, mugitu ezkerrera edo eskuinera.

Kameraren moduan irudia gerturatzeko edo urruntzeko, joan gora edo behera.

Argazki bat ateratzeko, hautatu **Kaptura**. Telefonoak memoria-txartelean gordetzen ditu argazkiak, txartela eskuragarri badago, edo telefonoaren memorian.

Argazkia egin ondoren ikusteko, hautatu **Auk. > Ezarpenak > Irudi. aurreikus. denb.** eta aurrebistarako denbora. Aurrebista pantailan dagoela, hautatu **Atzera**, beste argazki bat ateratzeko, edo **Bidali**, multimedia-mezu batean bidaltzeko.

Zure telefonoak 1200 x 1600 pixeleko argazkiak ateratzeko bereizmena du.

Bideoklipak grabatzea

Irudi estatikoko funtzioa erabiltzeko, hautatu **Menua > Media > Bideoa**, edo bideo-funtzioa aktibatuta badago, mugitu ezkerrera edo eskuinera.

Bideoa grabatzen hasteko, hautatu **Grabatu**; grabazioa eteteko, hautatu **Etena**; grabatzen jarraitzeko, hautatu **Jarraitu** eta grabatzen amaitzeko, hautatu **Gelditu**.

Telefonoak memoria-txartelean gordetzen ditu bideoak, txartela eskuragarri badago, edo telefonoaren memorian.

Kameraren eta bideoaren aukerak

Irargazki bat erabiltzeko, hautatu **Aukera > Efektuak**.

Kamera argi-kondizioetara egokitzeko, hautatu **Aukera > Zurien balantzea**.

Bideoaren edo kameraren beste ezarpen batzuk aldatzeko eta irudiak eta bideoak gordetzeko tokia hautatzeko, hautatu **Aukera > Ezarpenak**.

Musika-erreproduzitzailea

Telefonoak musika erreproduzitzailea du musika-pistak edo MP3 edo AAC formatua duten soinu-fitxategiak entzuteko; fitxategi horiek internetetik deskarga daitezke, edo Nokia PC Suite-ren bidez telefonora transferitu. **Ikus "Nokia PC Suite"**, 33. or. Halaber, grabatu edo deskargatutako bideoklipak ikus ditzakezu.

Telefonoaren edo txartelaren memoriako musikaren karpetan gordetako musika- eta bideo-fitxategiak automatikoki detektatzen dira, eta musika-liburutegira gehitzen dira.

Musika-erreproduzitzailea irekitzeko, hautatu **Menua > Media > Mus. errepro.**

Musikaren menua

Sartu telefonoko memorian edo memoria-txartelean gordetako musika- eta bideo-fitxategietara, deskargatu musika edo bideo klipak Internetetik, eta ikusi bideo-segida bateragarriak sare-zerbitzari batetik (sare-zerbitzua).

Musika entzuteko edo bideo klip bat erreproduzitzeko, hautatu fitxategi bat **Erpr.zerrd.ak, Artistak, Bildumak edo Generoak** karpetetan, eta hautatu **Erreproduzitu**.

Internetetik fitxategiak deskargatzeko, hautatu **Aukera > Deskargak** eta deskargatzeko leku bat.

Fitxategiak sartu ostean musika-liburutegia eguneratzeko, hautatu **Aukera > Eguner. liburut.**

Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

Zuk hautatutako musikarekin erreprodukzio-zerrenda bat sortzeko, egin urrats hauek:

1. Hautatu **Erpr.zerrendak > Sortu erpr. zerr.** eta sartu erreprodukzio-zerrendaren izena.
2. Sartu musika edo bideo klipak bistaratutako zerrendetatik.
3. Hautatu **Eginda** erreprodukzio-zerrenda gordetzeko.

Streaming zerbitzuaren konfigurazioa

Streaming-en ezarpenak zerbitzu-hornitzaileak bidaliko dizkizu konfigurazio-mezu gisa.

Ikus "Konfigurazioa doitzeko zerbitzua". 9. or. Ezarpenak eskuz ere sar ditzakezu. **Ikus "Konfiguratzea". 38. or.**

Konfigurazioa aktibatzeko, eman pauso hauek:

1. Hautatu **Aukera > Deskargak > Korrante ezarp. > Konfigurazioa**.
2. Hautatu zerbitzu-hornitzailea, eta, gero, hautatu **Lehenetsiak** edo **Konfigurazio pertsonala** korrante-ezarpen gisa.
3. Hautatu **Kontua** eta konfigurazio-ezarpen aktiboetan dagoen streaming zerbitzuaren kontu bat.

Abestiak erreproduzitzea



Oharra: neurrizko bolumenean entzun musika. Irratia etengabe oso ozen izateak, entzumena kalte dezake. bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

Multimedia

Erabili musika-erreproduzitzailea pantailako tekla virtualekin.

Bolumena doitzeko, sakatu desplazamendu-tekla gora edo behera.

Erreprodukzioa hasteko, hautatu ►.

Erreprodukzioa une batez eteteko, hautatu ||

Hurrengo abestira pasatzeko, hautatu ►► Aurreko abestiaren hasierara joateko, sakatu bi aldiz ◀◀ tekla.

Uneko abestian aurrera bizkor egiteko, luze sakatu ►► Entzuten ari zaren abestian atzera egiteko, hautatu eta luze sakatu ◀◀ tekla. Askatu tekla musikak erreproduzitzen jarraitzea nahi duzun anean.

Musika-erreproduzitzailearen menua ixteko eta musika erreproduzitzen bigarren planoan jarraitzeko, sakatu deia amaitzeko tekla.

Musika-erreproduzitzailea geratzeko, luze sakatu amaitzeko tekla.

Musika-erreproduzitzailearen itxura aldatzea

Telefonoak hainbat gai ditu, eta musika-erreproduzitzailearen itxura aldatzeko aukera ematen dizute horiek.

Hautatu **Menua > Media > Mus.errepro. > Mus. erreprod.ra > Aukerak > Ezarpenak > Mus.-jogailuaren gaia** eta zerrendako abesti bat. Baliteke tekla birtualak desberdinak izatea abestiaren arabera.

Irratia

IM irratiari dagokion antena ez da haririk gabeko gailuaren antena berbera. IM irratiak ongi funtziona dezan, gailuarekin bat datorren ekipamendua edo entzungailu bateragarriak konektatu behar zaizkio.



Oharra: neurrizko bolumenean entzun musika. Irratia etengabe oso ozen izateak, entzumena kalte dezake. bozgorailua erabiltzen duzunean, ez jarri telefonoa belarri ondoan, bolumena altuegia izan liteke eta.

Hautatu **Menua > Media > Irratia**.





Bolumena doitzeko, sakatu desplazamendu-tekla gora edo behera.

Pantailako tekla grafikoak erabiltzeko, mugitu gora, behera, ezkerrera edo eskuinera.

Irratia itzaltzeko, luze sakatu amaitzeko tekla.

Irrati-kateak sintonizatzea

Irrati-kateak bilatzea eta gordetzea

1. Bilatzen hasteko, luze sakatu  edo . Irrati-maiztasuna 0.05 MHz-eko tarteka aldatzeko, sakatu labur  edo .
2. Irrati-kate bat memorian gordetzeko, hautatu **Aukera > Gorde irratia**.
3. Irrati-katearen izena idazteko, hautatu **Aukera > Irratiak > Aukera > Berrizendatu**.

Hautatu **Aukera** eta aukera hauetako bat:

- **Irratiak bilatu** – zauden tokian eskuragarri dauden irradi-kateak automatikoki bilatzeko
- **Ezarri frekuentzia** – irradi-katearen maiztasuna sartzeko
- **Irratiak** – gordetako irradi-kateen zerrenda ikusteko, horien izena aldatzeko edo zerrendatik ezabatzeko




Irrati-kateak aldatzea

Joan ezkerrera edo eskuinera, edo sakatu zerrendan emisorek duten zenbakiari dagozkion zenbaki-teklak.




Irratiaren funtzioak

Entzungailutik bozgorailura edo alderantziz aldatzeko, eta soinu monofonikotik estereofonikora edo alderantziz aldatzeko, hautatu **Aukera > Ezarpenak**. Sintonizatutako irradi-katearen datu-sistemari buruzko informazioa bistaratzeko, hautatu **RDS aktibatu**. Sintonizatutako katea bereizmen hobearekin hartzeko automatikoki alda dadin, hautatu **Maizt. autom. aldatu**.

Grabagailua

Elkarrizketak, soinuak edo uneko deia graba ditzakezu eta **Galeria** karpetan gorde. Hautatu **Menua > Media > Grabagailua**. Pantailan ,  edo  tekla grafikoak erabiltzeko, mugitu ezkerrera edo eskuinera.

Soinua grabatzea

1. Hautatu , edo dei batean, hautatu **Aukera > Grabatu**. Dei bat grabatzen den bitartean, solaskideek txistu ahul bat entzungo dute. Grabazioa geldiarazteko, hautatu .
2. Grabazioa eteteko, sakatu  Grabazioa **Galeria** aukerako **Grabaketak** karpetan gordetzen da.

Hautatu **Aukera** azken grabazioa erreproduzitzeko edo bidaltzeko, grabazioen zerrendara sartzeko, edo grabazioak gordetzeko memoria bat eta karpeta bat hautatzeko.

Ekualizadorea

Doitu soinua musika-erreproduzitzaila erabiltzean. Hautatu **Menua > Media > Ekualizador..** Aurrez zehaztutako ekualizadore-talde bat aktibatzeko, joan taldeetako batera eta sakatu **Aktibatu**.

Ekualizadore-talde berri bat sortzea

1. Hautatu zerrendako azken bi taldeetako bat eta **Aukera > Editatu**.
2. Joan ezkerrera edo eskuinera desplazamendu-barra birtualetara sartzeko, eta gora edo behera, desplazamendu-barra doitzeko.
3. Ezarpenak gordetzeko eta taldeari izen bat emateko, hautatu **Gorde** eta **Aukera > Berrizendatu**.

Audio estereo hobetzea

Estereo handitzeak hobetu egiten du soinu-efektu estereo, entzungailu estereoak erabiltzen direnean.

Aktibatzeko, hautatu **Menua > Media > Estereo-zabalk..**

15. Web-a

Telefonoaren nabigatzailearekin, Interneteko hainbat zerbitzu erabil ditzakezu. Interneteko orrien itxura pantailaren tamainaren arabera alda daiteke. Agian ez dituzu ikusiko Interneteko orrietako xehetasun guztiak.



Garrantzitsua: kalte egin dezaketen programen aurkako babes eta segurtasun egokia eskaintzen dizuten konfiantzako zerbitzuak bakarrik erabili.

Zerbitzu horien erabilgarritasuna, prezioak eta jarraibideak kontsultatzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Nabigaziorako behar diren konfigurazioko ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen konfigurazio-mezu gisa jaso ditzakezu.

Zerbitzu bat konfiguratzeko, hautatu **Menua > Web > Web ezarpenak > Konfig.-ezarpenak** eta, ondoren, konfigurazio bat eta kontu bat.

Zerbitzu batera konektatzea

Zerbitzura konektatzeko, hautatu **Menua > Web > Hasiera orria**; bestela, luze sakatu **0** itxaroteko moduan.

Gogoko bat hautatzeko, sakatu **Menua > Web > Laster markak**.

Azken URLa aukeratzeko, hautatu **Menua > Web > Azken web helb**.

Zerbitzu baten helbidea idazteko, hautatu **Menua Web > Internet > Helbidera joan**. Idatzi helbidea eta sakatu **OK**.

Zerbitzu batera konektatu ondoren, haren orrietan nabigatzen has zaitezke. Telefono-teklen funtzioa zerbitzuen arabera alda daiteke. Segi telefonoaren pantailako testuko jarraibideei. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Itxuraren ezarpenak

Web-ean nabigatzen ari zaren bitartean, hautatu **Aukera > Ezarpenak**. Aukera hauek egon daitezke erabilgarri:

- **Pantaila** – Hautatu letra-tamaina, irudiak bistaratuko diren eta testua nola bistaratuko den.
- **Orokorra** – Hautatu web helbideak Unicode (UTF-9) gisa bidaliko diren, edukiarentzat zer kodetze-mota erabiliko den eta JavaScript aktibatuta dagoen.

Cache memoria

Cachea tarteko memoria da, datuak aldi baterako gordetzeko erabiltzen dena. Pasahitza eskatzen duen informazio konfidentzialera sartzen saiatzen bazara edo sartzen bazara, hustu telefonoaren cachea erabiltzen duzun bakoitzean. Sartu zareneko informazioa edo zerbitzuak cache memorian jasotzen dira.

Orri batek telefonoaren cache memorian gordetako datuak dira cookieak. Cache memoria ezabatu arte gordetzen dira cookie horiek.

Cachea husteko, nabigatzen ari zaren bitartean, hautatu **Aukera > Tresnak > Cachea ezabatu**. Telefonoak cookie-ak jasotzeko edo ez jasotzeko, hautatu **Menua > Web > Web ezarpenak > Segurtasuna > Cookieak**; edo, nabigatzen ari zarela, hautatu **Aukera > Ezarpenak > Segurtasuna > Cookieak**.

Nabigatzailearen segurtasuna

Segurtasuneko funtzioak beharrezkoak izan daitezke zerbitzu batzuetarako, adibidez, bankuko zerbitzuetarako edo telefono bidezko erosketaz-zerbitzuetarako. Horrelako konexioetarako segurtasun-ziurtagiriak behar dira, eta, agian, SIM txartelean erabilgarri egon daitekeen segurtasun-modulu bat. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Segurtasun-moduluko ezarpenak ikusteko edo aldatzeko, edo telefonoan deskargatutako autoritate- edo erabiltzaile-ziurtagirien zerrendak ikusteko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Segurtasuna > Segur.-modul. ezarp., Autorit.-ziurtagiriak** edo **Erabiltzaile ziurt**.



Garrantzitsua: ziurtagiriak erabiltzeak murriztu egiten ditu urruneko konexioei eta software instalazioei lotutako arriskuak, baina behar bezala erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatzeko. Ziurtagiri bat egoteak, berez, ez du babesik ematen. Ziurtagiri-administratzaileak ziurtagiri zuzenak, benetakoak edo fidagarriak izan behar ditu segurtasun gehigarria izateko. Ziurtagiriek iraupen mugatua dute. «Ziurtagiria iraungita» edo «Ziurtagiria ez da oraindik baliogarria» testua agertzen bada baliozkoa izan behar lukeen arren, egiaztatu telefonoaren uneko ordua eta data zuzenak direla.

16. Antolatzailea

Alarma

Telefonoak alarma-soinu bat egiten du nahi den orduan.

Alarma konfiguratzea

1. Hautatu **Menua > Antolatzailea > Alarma**.
2. Aktibatu alarma eta aukeratu ordua.
3. Alarmak asteko egun jakin batzuetan jo dezan, hautatu **Errepikatu: > Piztuta** eta egunak.
4. Hautatu alarmaren seinalea. Alarma-seinale gisa irratia aukeratu baduzu, konektatu entzungailuak telefonora.
5. Ezarri alarma zenbat denboran errepikatu, eta hautatu **Gorde**.

Alarma itzaltzea

Alarma geldiarazteko, aukeratu **Gelditu**. Telefonoari minutu batez ohar-tonua jotzen uzten badiozu edo **Errepikatu** aukeratzen baduzu, alarma gelditu egiten da errepikapen-denboran, eta, gero, berriro jotzen du.

Kontaktuak

Hautatu **Menua > Antolatzailea > Egutegia**.

Gaurko eguna lauki baten barruan agertzen da. Egun horretarako oharren bat konfiguratuta badago, beltzez agertuko da. Eguneko oharrak ikusteko, hautatu **Ikusi**. Astea ikusteko, hautatu **Aukera > Asteko ikuspegia**. Agendako ohar guztiak ezabatzeko, hautatu **Aukera > Oharrak ezabatu > Ohar guztiak**.

Data eta orduarekin lotutako ezarpen guztiak editatzeko, hautatu **Aukera > Ezarpenak** eta aukeretako bat.

Denbora-tarte jakin bat pasatu ondoren ohar zaharrak automatikoki ezabatzeko, hautatu **Aukera > Ezarpenak > Auto-ezab. oharrak** eta aukeretako bat.

Agendan ohar bat sortzea

Joan datara eta hautatu **Aukera > Ohar bat egin**. Hautatu ohar-mota eta bete eremuak.

Lanen zerrenda

Zereginen oharrak gordetzeko, aukeratu **Menua > Antolatzailea > Egitekoen zerr.**

Erantsitako oharrak ez badago oharra sortzeko, hautatu **Jar ohar**; bestela, hautatu **Aukera > Gehitu**. Bete eremuak eta hautatu **Gorde**.

Oharra bistaratzeko, joan oharrera eta aukeratu **Ikusi**.

Oharrak

Oharrak idazteko eta bidaltzeko, hautatu **Menua > Antolatzailea > Oharrak**.

Erantsitako oharrak ez badago oharra sortzeko, hautatu **Ohr.geh.**; bestela, hautatu **Aukera > Ohar bat egin**. Idatzi oharra eta aukeratu **Gorde**.

Kalkulagailua

Zure telefonoak kalkulagailu estandarra, kalkulagailu zientifikoa eta maileguen kalkulagailua ditu.

Hautatu **Menua > Antolatzailea > Kalkulagailua** eta kalkulagailu-mota eta funtzionamenduari buruzko jarraibideak, dauden aukeren artean.

Kalkulagailuak doitasun mugatua du, kalkulu errazak egiteko diseinatuta dago.

Atzerako kontaktaren tenporizadorea

Tenporizadore arrunta

1. Tenporizadorea aktibatzeke, hautatu **Menua > Antolatzailea > Denborag. > Denborag. arrunta**, sartu denbora eta idatzi aukeratutako denbora amaitzen denean bistaratuko den oharra. Denbora hori aldatzeko, hautatu **Ordua aldatu**.
2. Tenporizadorea abiarazteke, hautatu **Hasi**.
3. Tenporizadorea geldiarazteke, aukeratu **Denborag. geldiar**.

Tarte-denboragailua

1. Hasitako 10 tarte neur ditzakezu denbora-tarteak neurtzeko tenporizadorearekin. Sartu lehen tarte.
2. Hautatu **Menua > Antolatzailea > Denborag. > Tarte denborag.**
3. Tenporizadorea abiarazteko, hautatu **Denb. berr. gehi > Hasi.**

Hurrengo aldia tarte-denboragailua nola abiarazi behar den hautatzeko, hautatu **Menua > Antolatzailea > Denborag. > Ezarpenak > Jarraitu hurr. aldira** eta aukeretako bat.

Kronometroa

Kronometroarekin denbora neur dezakezu, eta tarteko denborak eta fase bakoitzeko denborak izan ditzakezu.

Hautatu **Menua > Antolatzailea > Kronometr.** eta aukera hauetakoren bat:

- **Denb. kontr. zati** – tarteko denborak hartzeko. Denbora gorde gabe berrezartzeko, aukeratu **Aukera > Zeroan jarri.**
- **Itzul.denb.kontr.** – denborak faseka hartzeko
- **Jarraitu** – bigarren mailan definitutako denbora ikusteko
- **Azkena erakutsi** – neurtutako azken denbora ikusteko, kronometroa berriz martxan jartzen ez bada
- **Denborak ikusi** edo **Denborak ezabatu** – gordetako denborak ikusteko edo ezabatuzeko.

Kronometroak bigarren mailan funtzionatzea nahi baduzu, sakatu deia amaitzeko tekla.

17. Aplikazioak

Baliteke zure telefonoak joko edo aplikazio batzuk instalatuta izatea. Fitxategi horiek telefonoaren memorian edo memoria-txartelean gordetzen dira, eta karpetetan antola daitezke. [Ikus “Memoria-txartela”. 41. or.](#)

Aplikazio bat abiaraztea

Aukeratu **Menua > Aplikazioak > Jokoak, Memo txartela** edo **Bilduma.**

Nahi duzun joko edo aplikaziora joan eta hautatu **Ireki.**

Jokoan soinuak, argia eta bibrazioa definitzeko, aukeratu **Menua > Aplikazioak > Aukerak > Ap. ezarpenak.**

Hona hemen erabilgarri egon daitezkeen beste zenbait aukera:

- **Berts. eguneratu** – Web-etik deskargatzeko aplikazioaren bertsio berria eskuragarri dagoen egiaztatzeko (sare-zerbitzua).

- **Web orria** – Interneteko orri batetik aplikazioari buruzko informazio xeheagoa edo datu osagarriak emateko (sare-zerbitzua)
- **Ap. sarrera** – aplikazioaren sarerako sarbidea sarera mugatzeko

Aplikazioa deskargatzea

Telefonoak Java J2ME aplikazioak onartzen ditu. Deskargatu aurretik, ziurta ezazu aplikazioa telefonoarekin bateragarria dela.



Garrantzitsua: Konfiantzako iturrietako aplikazioak eta softwareak bakarrik erabili eta instalatu, adibidez, Symbian Signed duten edo Java Verified™ probak gainditu dituzten aplikazioak.

Hainbat modutara deskarga ditzakezu aplikazio eta joko berriak:

- Hautatu **Menua > Aplikazioak > Aukera > Deskargak > Ap. deskargak** edo **Joko deskarg.** Erabilgarri dauden gogokoen zerrenda bistaratuko da.
- Erabili PC Suite-ren Nokia Application Installer, telefonoan aplikazioak deskargatzeko. Kontsultatu zerbitzu-hornitzailearekin zerbitzuen erabilgarritasuna eta prezioak.

18. SIM zerbitzuak

Litekeena da SIM txartelak zerbitzu osagarriak eskaintzea. SIM txartelak onartzen badu bakarrik bistaratuko da menu hau. Menuaren izena eta edukia eskura dauden zerbitzuen menpe daude.

SIM zerbitzuak erabiltzean sarearekin trukaturako berrespen-mezuak bistartzeko, hautatu **Menua > Ezarpenak > Telefonoa > Egiazt. SIM ekintzak**

Zerbitzu horietara sartzek fakturatuko diren testu-mezuak igortzea edo telefono-dei bat egitea ekar dezake.

Ekipamendua



Oharra: Nokiak modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta ekipamendua soilik erabili. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratu daitezke, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako ekipamendua badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin. Edozein ekipamenduren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta egin tira handik, ez egin tira haritik.

Bateria

Bateriari eta kargagailuari buruzko informazioa

Telefonoa elikatu egiten da, berriz kargatzen den bateria baten bidez. Gailu hau BL-4CT bateriarekin erabiltzeko diseinatuta dago. Gailu hau AC-4 kargagailuak erabilia elikatzeko diseinatuta dago. Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Hitz egiteko denbora eta itzaroteko moduaren denbora normalean baino laburragoak badira, aldatu bateria. Erabili Nokiak onartutako bateriak soilik, eta kargatu bateriak Nokiak gailu honentzat onartutako kargagailuak erabiliz. Onartu gabeko kargagailua edo batera erabiliz gero, suteak, leherketak eta ihesak gertatzeko arriskua edo beste gertaera batzuk izateko dago.

Kargagailuaren modelo-zenbakia aldatu egin daiteke, entxufe-motaren arabera. Entxufe-mota honela adierazten da: E, EB, X, AR, U, A, C edo UB.

Bateria bat erabiltzen duzun lehen aldian, edo bateria denbora luzez erabili gabe egon bada, baliteke kargagailua konektatu behar izatea, eta, gero, deskonektatu eta berriz konektatu behar izatea, bateria kargatzen has dadin. Bateria erabat deskargatuta badago, minutu batzuk pasatuko dira pantailan karga-adierazlea agertu arte edo deia egin ahal izan arte.

Bateria atera aurretik, telefonoa itzali beti eta deskonektatu kargagailua.

Deskonektatu kargagailua entxufetik eta telefonotik erabili behar ez baduzu. Bateria erabat kargatuta dagoenean, kendu kargagailutik, gehiegi kargatzeak iraupena murrizt baitezake. Guztiz kargatuta dagoen bateria erabiltzen ez bada, bateria deskargatu egiten da denbora jakin baten ondoren.

Saiatu tenperatura-tarte honetan izaten beti: 15° - 25 °C (59 °F - 77 °F). Muturreko tenperatuk bateriaren ahalmena eta iraupena murrizten dituzte. Bateria bero edo hotz badago, litekeena da gailuak aldi batean ez funtzionatzea. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Zirkuitulaburra gerta liteke objektu metaliko batek –txanpon bat, klip bat edo boligrafo bat– zuzenean konektatzen baditu bateriaren terminal positiboa (+) eta negatiboa (-). (Bateriaren banda metalikoak dira.) Hori gerta liteke, adibidez, patrikan edo poltsan beste bateria bat baduzu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Ez bota bateriak sutara, balio ez dutenean, lehertu egin baitaitezke. Bestalde, bateriak lehertu egin daitezke, hondatuta badaude. Bete tokiko araudia, erabilitako bateriak botatzeko garaian. Mesedez, birziklatu ahal den guztietan. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.

Ez desmuntatu, moztu, ireki, zapaldu, tolestu, deformatu, zulatu edo xehatu pilako elementuak eta bateriak. Bateriak likidoren bat galtzen badu, ez ukitu azala edo begiak likidoarekin. Ukitu baldin baduzu, garbitu begiak edo azala berehala urez, edo joan medikuarengana.

Ez aldaketarik egin baterian, ez egin berriro bateria eta ez sartu objekturik baterian; ez sartu edo utzi uretan edo beste likido batzuetan.

Bateria behar bezala ez erabiltzeak suteak, leherketak edo beste arrisku batzuk ekar ditzake. Gailua edo bateria erori egin bada, bereziki gainazal gogo batean, eta bateria hondatuta dagoela uste baduzu, eraman zerbitzu-zentro batera, erabiltzen segi aurretik azter dezaten.

Erabili bateria diseinatu zuten helbururako bakarrik. Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude. Ez utzi bateria haurren eskuera.

Nokia bateriak autentifikatzeko arauak

Zure segurtasunerako, erabili beti jatorrizko Nokia bateriak. Nokia bateria jatorrizkoa izan dadin, eros ezazu Nokiaren saltoki eta begiratu etiketari, urrats hauei jarraiki:

Urratsak behar bezala egin arren, bateria jatorrizkoa den berme osorik ez dugu.

Eskuratutako Nokia bateria benetakoa eta jatorrizkoa ez dela susmatzen baduzu, ez duzu erabili behar. Hurbilen duzun Nokiaren hornitzailearengana edo saltokira eramatea eta laguntza eskatzea gomendatzen dizugu. Nokiaren hornitzaile edo saltoki baimenduak egiaztatuko du bateria jatorrizkoa den. Ezin bada frogatu bateria jatorrizkoa dela, eraman berriro eskuratu duzun tokira.

Hologramaren egiazkotasuna

1. Hologramaren etiketa ikustean: angelu batetik, elkartzen diren eskuen irudia ikusiko da (Nokiaren ikurra), eta, bestetik, Nokia Original Enhancements-en logotipoa (Nokiaren jatorrizko ekipamendua).
2. Okertu holograma logotipoaren ezkerrera, eskuinera, gora eta behera, eta 1, 2, 3 eta 4 puntuak ikusi behar dira alboetan.



Zer gertatzen da bateria benetakoa ez bada?

Hologramaren etiketarekin ezin baduzu egiaztatu Nokia bateria benetakoa den, ez erabili, eta eraman hurbilen duzun Nokiaren hornitzaile baimenduarengana edo saltokira, laguntza eskatzeko. Arriskutsua izan daiteke fabrikatzaileak onartzen ez dituen bateriak erabiltzea, gailuaren errendimendua hondatu eta gailua eta ekipamendua honda dezakete. Halaber, gailuaren hainbat onarpen edo berme baliogabetu ditzake.

Nokiaren jatorrizko bateriei buruzko informazio gehiago behar baduzu, ikus www.nokia.com/battery.

Zainketa eta mantentze-lana

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da, eta arduraz zaindu behar da. Iradokizun hauekin, bermearen estaldura babestuko duzu.

- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte. Telefonoa bustitzen bada, kendu bateria eta itxaron telefonoa erabat lehortu arte bateria berria jartzeko.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek eta osagai elektronikoak hondatu egin litezke.

- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Temperatura altuek gailu elektronikoen iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde gailua leku hotzetan. Telefonoak ohiko temperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoen plakak kalte ditzake.
- Ireki telefonoa beti gidaliburu honetako jarraibideen arabera.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakar erabiltzen baduzu, barne-zirkuituen plakak eta pieza mekaniko ahulenak puskatu egin litezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarririk, disolbagarririk edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.
- Erabili zapi leun, garbi eta lehor bat lenteak garbitzeko (adibidez, kamera, hurbiltasun-sentsorea eta argi-sentsorea).
- Erabili telefonoak berez daukan antena edo baimendutako ordezkoko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokete telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.
- Ez erabili kargagailurik aire zabalean.
- Sortu beti gorde nahi dituzun datuen segurtasun-kopia bat; adibidez, aurkibideko kontaktuak edo oharak.
- Errendimendua hobetzeko, noizean behin gailua berrabiarazi nahi baduzu, itzali gailua eta atera bateria.

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Gailuren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimendutako banatzaileari.

Ezabatzea



Gurpildun edukiontzien irudiak, dokumentazioak eta salmenta-paketeak adierazten dute bereizita jaso behar direla produktu elektroniko eta elektriko guztiak, bateriak eta metagailuak, haien bizi-zikloaren amaieran. Europako Batasunean eta bereizita biltzeko sistemak erabilgarri dauden lekuetan aplikatzen da eskakizun hori. Ez bota produktu hauek udal-hondakindegietara sailkatu gabe.

Produktuak itzultzen badira bil daitezten, hondakinak kontrolik gabe ez botatzen eta baliabide materialak berrerabiltzen laguntzen da. Informazio xehatuagoa izateko, galdetu banatzaileari, herriko agintariei, hondakinak kudeatzeko enpresei edo Nokiak zure herrian duen ordezkariari.

Errespetuzko produktuaren adierazpenera sartzeko edo produktu zaharkituak itzultzeari buruzko argibideak izateko, ikus zure herrialderako informazio espezifikoak www.nokia.com gunean.

Segurtasunari buruzko informazio osagarria

Haurrak

Gailuak eta haren ekipamenduak pieza txikiak izan ditzakete. Ez utzi haurren eskueran.

Ingurune operatiboa

Produktu honek irrati-maiztasunaren energiarekiko esposizioa arautzen duten arauak betetzen ditu, bai belarriaren ondoan, bai gorputzetik gutxienez 1,0 cm-ra (3/8 hazbete) edukitzen denean ere. Gailua zorro babesle batekin, gerriko pintza batekin edo euskarri batekin gorputzetik gertu erabiltzen baduzu, komeni da zuk metalik gainean ez izatea eta produktua gorputzetik lehen aipatutako distantziara izan behar duzu.

Mezuak edo datu-fitxategiak transmititzeko, gailu honek kalitateko sare-konexioa behar du. Kasu batzuetan, mezuen edo datu-fitxategien transmisioa atzeratu egin liteke konexio egokia erabilgarri egon arte. Ziurtatu transmisioa amaitu bitartean distantzietan buruzko jarraibideak betetzen dituzula.

Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoei, telefono mugikorrek barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden gailu medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo aparatu medikoaren fabrikatzailearekin, irrati-maiztasunen kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan irrati maiztasunen kanpo-seinaleekiko sentikorrak diren ekipoei erabiltzea.

Gorputzean ezarritako gailu medikoak

Gailu mugikorraren eta pertsonak dituen gailu medikoen artean (adibidez, taupada-markagailuak edo kardiobertsio-desfibriladoreak) gutxienez 15,3 cm-ko (6 hazbeteko) distantzia izatea gomendatzen dute gailu medikoen fabrikatzaileek, gailu mediko horiek interferentziarik ez sortzeko. Gailu horiek dituztenek alderdi hauek kontuan izan behar dituzte:

- Haririk gabeko gailua piztuta badago, beti utzi behar da 15,3 cm (6 hazbete) baino gehiago gailu mugikorraren eta gailu medikoaren artean.

- Haririk gabeko gailua ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelan.
- Gailu medikoaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute haririk gabeko gailua, interferentzia-arriskua ahal bezainbat murrizteko.
- Haririk gabeko gailua berehala itzali behar dute baldin eta interferentziaren bat gertatzen ari dela konturatzen badira.
- Gorputzean ezarritako gailu medikoaren fabrikatzailearen jarraibideak irakurri eta haiei jarraitu behar zaie.

Haririk gabeko gailua gorputzean ezarritako gailuarekin erabiltzeari buruzko zalantzaren bat baduzu, galdetu zure medikuari.

Entzuteko gailuak

Haririk gabeko zenbait terminal digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Ibilgailuak

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoei eragin diezaiekete IM seinaleek (esate baterako, injekziozko sistema elektronikoa, ibilgailuen balaztak blokeatzea eragozten duen balazta-sistema elektronikoa –ABS–, abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoa, airbag-sistemak). Informazio gehiago nahi izanez gero, egiaztatu zure autoaren edo zuk erantsitako ekipamenduaren alderdi horiek fabrikatzailearekin edo haren agente komertzialarekin.

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta telefonoari aplikatzen zaion bermea baliogabetu. Egiaztatu maiz zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipo osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela. Ez biltegitatu eta garraiatu likido sukoiarik, gasik eta material lehegarririk telefonoa eta haren piezak edo ekipamendua dauden leku berean. Airbaga duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik –ez instalaturiko ekipoa, eta ez telefono mugikorraren pieza eramangarriak– airbagaren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbaga zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago hegazkinetan telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Haririk gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak.

Lehertzeko arriskua dagoen tokietan autoaren motorra itzaltzea gomendatzen dute normalean. Eremu horietan ezta edo suteak izan litezke txinparten ondorioz, eta horiek kalte pertsonalak eragin ditzakete, baita heriotza ere. Itzali telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan (adibidez, zerbitzuguneetako hornigailuen ondoan). Errespetatu erregai-deposituetan, biltegitratzeko eta banatzeko eremuetan, instalazio kimikoetan eta leherketa-eremuetan irrati-ekipoak erabiltzeko dauden murrizketak. Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak, produktu kimikoak biltegitratu eta garraiatzeko instalazioak eta airean partikulak edo elementu kimikoak dauden eremuak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak). Galdetu petrolio-gas likidotua (propanoa edo butanoa, adibidez) erabiltzen duten ibilgailuen fabrikatzaileei ibilgailutik gertu gailua erabiltzea segurua den.

Larrialdi-deiak



Garrantzitsua: Gailu hau irrati-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin ibiltzen da. Zure gailuak Internet bidezko ahots-deiak (Internet bidezko deiak) onartzen baditu, aktibatu bai Internet bidezko deiak, bai zure telefono zelularra. Larrialdi-deiak bi bideetatik, sare zelularren bidez eta Interneteko deien hornitzailearen bidez, egiten saiatuko da gailua, biak aktibatuta badaude. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Ez egon inoiz gailu mugikor baten baitan komunikazio garrantzitsuetarako (larrialdi medikoetarako adibidez).

Larrialdi-deia egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Gailuaren arabera, litekeena da hau egin behar izatea:
 - Sartu SIM txartela, zure gailuak bat erabiltzen badu.
 - Kendu gailuan aktibatutako deien murrizketak.
 - Aldatu lineaz kanpoko modua edo konexiorik gabeko modua modu aktibo batera.
2. Sakatu deiak amaitzeko tekla behar adina aldiz, pantaila ezabatu eta telefonoa deitzeko prest jarri arte.
3. Markatu tokiko larrialdi-zenbakia. Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi-dei bat egitean, eman beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta zehatzen. Litekeena da zure telefono mugikorra izatea istripuaren lekuko komunikazio-bitarteko bakarra. Ez eten deia horretarako baimena ematen dizuten arte.

ABSORTZIO ESPEZIFIKOAREN TASAREN ZIURTAGIRIA (SAR)

Irrati-maiztasunaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen ditu gailu mugikor honek.

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Nazioarteko arauak gomendaturiko irrati-maiztasunaren energiarako esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Direktiba horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak sortu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako babes-tarteak dituzte.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR izeneko unitatearekin neurtzen da. ICNIRP direktibetan ezarritako muga 2,0 watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren 10 gramoko. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guzietan. Martxan dagoen gailu batean SAR unitatearen benetako maila gehienezko baliotik beherakoa izan daiteke; izan ere, gailua diseinatuta dago sarearekin konektatzeko behar adina indar izateko bakarrik. Zenbateko hori aldatu egin daiteke hainbat faktoreren arabera, adibidez, sarearen oinarritzko estazio batekiko hurbiltasuna. ICNIRP arauen arabera, hau da gailua belarrian erabiltzeko SAR unitatearen baliorik handiena: 1,29 W/kg.

Gailuarentzat beste osagarri eta ekipamenduak erabiltzen badira, beste SAR balio batzuk izan daitezke. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko proba-eskakizunen eta informazioaren eta sarearen bandaren arabekoak dira. SARi buruzko informazio gehiago lortzeko, ikus produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

Aurkibide alfabetikoa

A

adierazleak 18
aholku erabilgarriak 10
ahots bidezko markaketa 20
ahotsa ezagutzeko funtzioa 37
ahotsaren garbitasuna 36
ahots-komandoak 37
aplikazioak 50
argazkiak 42
argazkiak atera 42
audio estereoa hobetu 46

B

bateria 14
Bateriaren karga-egoera 17
berehalako mezuak 27
berriro deitu 36
bideoklipak 42
bisita-txartelak 20
bozgorailua 21

C

caché memoria 47
cookieak 47

D

datu-kablea 33
datu-paketeak 32
deia zain 36
deiak desbideratu 36
dei-egilearen identitatea 36
deien erregistroa 31
deskarga 10
desplazamendua 22

E

edozein teklak erantzun 36

egoeraren adierazleak 17
ekipamendua 37
ekualizadorea 46
Entzungailuak 15
esku libreak 21
ezarpenak 34

F

flash mezuak 26

G

gaiak 34
GPRSa 32
grabagailua 45

H

hasierako tonua 37
hegaldikoa modua 18
hegazkin galdera 37
hizkuntza 36
horma-papera 34

I

informazio-mezuak 27
Internet 46
irratia 44
irudiak inprimatu 40
itxarote aktiboa 17,34

J

jatorrizko konfigurazioa 40
jokoak 50

K

kalkulagailua 49
kamera 41,42
kokapenari buruzko informazioa 31
kokapen-erregistroa 31

konfigurazioa 38
konfigurazioa doitzeko zerbitzua 9
kronometroa 50

L

laguntza-testua 37
lasterbidea 18,35
laster-markaK 20, 30, 27
letra-tamaina 35
lineatik kanpo modua 19

M

markaketa bizkorra 20,30,36
memoria-txartela 13,41
mezuak bidali 25
mezuen zentroko zenbakia 23
microSD txartela 13
moduak 34
murrizketa-pasahitza 9
musika-erreproduzitzaila 42
My Nokia 10

N

nabigatzailea 46
nabigazioa 22
Nokia Care 11

O

oharrak 49
ohiko bidea erabilia testua idatzi 22
operadorearen menua 40

P

pakete bidezko irrati-zerbitzu orokorra 32
pantaila 17,34
pantaila-babesa 35
PCSuite 33
PictBridge 33
piezak 16
PINa 9
posta elektronikoa 25

PUKa 9

S

sarbide-kodeak 9
segurtasun-kodea 9
segurtasun-modulua 9
seinaleaK 34
seinalearen intentsitatea 17
SIM mezuak 27
SIM txartela 12,19
SIM zerbitzuak 51
softwarea eguneratu 10,38

T

teklak 16
teklatura blokeatu 19
teklatuaren babesa 37
telefonoaren softwarea eguneratu 37
testu prediktiboarekin idatzi 22
testua idatzi 21
testua idazteko moduaK 21

U

uhala 15
uneko deiaren tenporizadorea 36
UPINa 9
USB datu-kablea 33

W

web-a 46

Z

zenbakizko modua 21
zerbitzu-komandoak 27



Kudeaketako Bikaintasunean Zilarrezko
Q saria lortu duen lehenengo
Telekomunikazio-Operadorea



Primer Operador de Telecomunicaciones
distinguido con la Q de Plata a la
Excelencia en la Gestión